


GEHI GASTEIZ

Elkarrizketak

Reina Ruiz Bobes
Fernando Auzmendi
Miguel Prieto

Erreportaia

Korrika:
1+1=hamaika




martxoak 3
martxoak 13
martxoak 25

martxoak 8
martxoak 14
martxoak 27

**langileak, emakumeak, trebiño, euskal eskola publikoa,
korrika kulturala, korrika, euskharanen jaialdia...**

Auzo mugimenduak eta euskara

KOLBO CANON / GEU ELKARTEKO IRUDIA



Judimendi auzoan, euskara ahoan. Horrela esan ohi dugu Gasteizko alde honetako euskararen aldekoak garen talde eta biztanleok. Berdin esan ahal izango lukete beste auzo guztiek, orokorrean azken urte hauetan hauxe izan delako, beste batzuen artean, geure helburu garrantzitsuenetarikoa bat.

Ez da lan erraza auzo mugimendua zer den, nolakoa den eta zertarako egiten duen lan erantzutea lerro batzuetan. Hala ere, ezaugarri batzuk argi daitezkeelakoan nago. Hauen artean aniztasuna da nabarmenena, Euskal Herri osoan gertatzen den bezala anitzak baikara benetan, eta hauxe gaur egun geure nortasunaren islada dela esatera ausartuko nintzateke. Nola azal daiteke, bestela, edozein auzo ala herri nimen batean auzo elkarteak, gastronomikoak, feministak, ekologistak, intsumisioaren aldekoak, presoen aldekoak, euskaren bultzatzaile amorratuak, kirol askotako zaleak, bidaiatzaileak... perretxikoak bezala hazi eta ugaritzea? Talde bakoitzean normalean gutxi bagara ere, bost axola! gure kaleetan izugarritzko tribu paregabea osatzen dugu eta.

Beste ezaugarri bat datorkit burura, ederto definitzen gaituena: beste mota bateko gizarte bat erakitzen lagungarri izan nahi dugula, eta apustu honetan ari gara buru-belarri. Eta zer demontre esan nahi du esaldi ponpox honek? Bada, benetako demokrazia denon partehartzean datzala, geure eskubideak eta erantzunkizuna ez ditugula hautes-tontzian lau urtetan behin ahazturik utzi nahi,


geure buruaren jabe izan nahi dugula gai guztietan eta ordezkatzeko gaituztenei gure hitza eta iritzia gogorarazi nahi diegula. Halako filosofia mantentzea askotan ez digu mesederik egin, demokrazia hitza hiztegietan bakarrik gordetzen dutenek ate asko itxi dizkigutelako eta hiritarrok erabakietatik kanpo utzi nahi gaituztelako, baina egoskorragara eta atek denon artean errazago irekitzen dira. Haize bolada freskoagoak datozkigula dirudi. Hala bedi!

Hirugarren ezaugarri bat ez aipatzea bekakua izango litzateke, hau da, talde hauen guztien gizon-emakumeok eskuzabaltasunez eta interesik gabe emandako milioika ordu lanean, arazo guztien aurrean inurri lana eginez eta zailtasunetan duintasunez borrokatuz... Korrika heltzeaz daukagunean, nola ez aipatu hainbeste urteotan oztopo guztien gainetik gure hirian AEKk, IKAk eta beste euskaltzale askok egindako lan erraldoia. Mila esker hemendik denon partetik!

Auzo mugimenduek akatsak ere izan dituztela ukatzerik ez dago. Euskararen munduan, adibidez, denon arteko koordinazioa eza gutxitu ala moteldu egin ditu lor zitezkeen emaitzak. Dinamika berri bat behar dugu auzoetan ere Hizkuntz Normalkuntzarantz eta ezinbestekoa dugu talde guztiok plantza adostuak sortzea. Aitzindari daukagu Aranbizkarrako Euskharan Elkartea eta ildo horretatik doan beste auzoetako lana: Judimendi, Adurtza, Arana...

Naturaren isladak

Argi-oilarrak (*Upupa epops*)



GEU GASTEIZ, Gasteizko
Euskaldunen hilabeteakaria

ERREDAKZIOA:
Pedro Asua, 2 - 3.a
Telefona eta Faxa: 22 21 53

ZUZENDARIA:
Estibx Breñas Glez. de Zarate.

ERREDAKZIO-BATZORDEA:
Leire Lopez de Aberasturi, Ismael Diaz
de Mendibil, Txabi Arnal-Gil, Raul
Saez de Buruaga, Itziar Uriarte,
Edorta Sanz.

ARGAZKIAK:
Edorta Sanz.

MAKETA:
Galzagain Argitarapenak
Telefona: 970 40 18 46

KOMIKIA:
Iñigo Sarasola

NATURAREN ISLADAK:
Jose Antonio Guinzarain.

KOLABORATZAILEAK:
Imanol Olaberria, Ederne Begiristain,
Iñigo Kasresana.

PUBLIZITATEA:
Karlos Fdez. de Beloño.

BANAKETA ARDURADUNA:
Txipi Ormaetxea.

INPRIMATEGIA:
Gerlu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)

ALE KOPURUA:
2.500

LG: VI-582/92
ISSN: 1133-0988
Frankoe Itundua 48/27 zenb.

ALDIZKARI HAU PAPER
ERLOGGIERAZ EGINA DAGO

Geu Gasteiz hilabeteakariak
ez du bere gain hartzen
berlan adierazilakoen erantzunkizunik.



HIZKUNTZA

Musika:
Txalapartaren
oraina eta
etorkizuna
Fernando
Auzmendi
Perdiren
eskutik.

iritzizak

- 30 Imanol Olaberria**
Amets, borroka eta ilusio koktel bat.
33 Ederne Begiristain
Feminismoa

laburrak

- 6 Geurekin mendira**
Anima zaitetz!
6 Euskara
Denok Mendizorrotzara.

erreportaiak

- 10 Gizartea**
Bat+bat= hamairu.

anunkibidea

Martxoaren 25ean Korrikak
Gasteiz bisitatuko du.

10
orr.

KULTURA



24
orr.

piti-pata

- 17 Txikienon orrialdeak.**
Martxoaren 26an Korrika txikia.

elkarrizketak

- 14 Reina Ruiz**
Martxoaren 8a hizpide.
23 Miguel Prieto
Granada-Dakarrean azpitxapelduna.

kirolak

- 25 Botepronton:**
Jose Luis Ortun.
29 Europa bizikletaz:
Bon jour, les amis-amies!

kultura

- 26 Musika**
Fernando Auzmendi, Perdi,
Txalapartaren oraina eta etorkizuna.
28 Gaurkoak eta betikoak
Bob Dylan, Lauryn Hill eta Anari
29 Agenda
Martxoako kultur ekitaldi eta
erakusketen zerrenda luzea.

ohikoak

- 2 Editoriala**
Naturaren isladak
5 Kalea Mintzo
32 Komikia



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



Gasteizko Udala Argitarapen Zerbitzua



Arabako Foru Aldundiko Kultura eta
Euskara Sailak diruz lagundutako aldizkaria



NOR DA NOR?

HELBIDEA: <http://www.ivasca.com>

SORTZAILEA: Coertextos

Interneteko euskarazko lehenengo jolasa sortu dute. Bilboko Cibertextos argitaletxeak jarri du abian eta ingelesezko baten aldaera da. Jokalariek hamar argazkitan ageri diren pertsonaia ezagunak nor diren asmatu behar dute. Hamar galderak asmatzen dituzten laguntzat sariak banatzen ditu Cibertextosek. Web orrialde honek beste hainbat informazio interesgarri dakar, euskaraz zein gastelesez.

santa barbarako azoka

Agurrak, saldu edo erosi nahi duzuna... idatzi postazi: **pedro asua, 2. 3.a faxa. 22 21 53**

SALTZEN DUT

Antzinako txanponen bilduma saltzen dut, baita gehiago ere. Mende honetakoak eta nazio arniztekoak ere badauzkat.

945 14 54 90

Lanpara bat dut salgai sarrean ipintzen den kristalxo asko duen honetako dotore bat. Oso ona da.

945 22 73 03 Maite

Telefono mugikorra daukat salgai. Ascom Elisto (Artel). 19.000 pta. baliu du eta nik 15.000 pta. salduko dizut.

945 22 73 03 Jabi

Pedro Sainz margolariaren oleo bat daukat salgai. Arabako Lasarte herria da. 108x87. Salneurria. 60.000.

945 22 73 03

Trono itxurako aulki handi bat daukat salgai, oso aproposa adineko jendearentzat. Erosoa. Salneurria. 12.000.

945 22 73 03

49 c.c.ko ziklotomorea dut salgai. Salneurria.

25.000 pta.

945 14 54 90

DEITZEN DIZUT

Ohiko osasun sistemam atzeri ez bazaituzte, zatoz Sumendi osasunaren autogestioaren aldeko elkartera.

945 22 65 03

Ez hago bakarrik! Hator Gaytasunara. Informazioa, hitzaldiak eta eztabaidak, psikologi, sexologi eta lege aholkularitza... Bilerak asteazkenero.

945 25 77 66

Gasteizko Esperanto Elkarteak Hizkuntza txikiak maite ditugulako, esperantoz mintzatzen gara.

Zapatari kalea, 29

ALOKATZEN DUT

Aktiboan dagoen harategia alokatzen da. Esparru zabala da eta ondo prestatuta dago.

945 24 08 65 Ana

BESTEAK

Bilbora edo Galdakaora egunero joaten den pertsona baten bila nabil gastuak konpartitzeko.

945 24 92 36

Geu Gasteiz aldizkaria.
Pedro Asua kalea, 2. 3.a
faxes: 22 21 53
geugaste@grn.com

PREMIAZKO TELEFONOAK (BETI 945 AURRETIK)

S.O.S. DEIAK:	112	AUTOBUS GELTOKIA:	25 84 00
UDALZAINGOA:	092	RENFE:	23 02 02
INFORMAZIOA:	010	AIREPORTUA:	16 35 91
SUHILTAILEAK:	16 11 11	ERREPIDEETAKO INFORMAZIOA:	28 20 00
GURUTZE GORRIA:	22 22 22	HIRI-BABESA:	16 11 61
D.Y.A.:	28 10 20	UDALETXEA:	16 11 00
ERIETXEETAKO URGENTZIAK:	24 44 44	FORU ALDUNDIA:	18 18 18

hazkai-tuan

Monte del Pico jarri dezatela, baina ez Mendizorroza!... Zuya-Mendizorroza diozku irudiko autobuseko kartel argidunak, baina hamarka antzerako aurki ditzazkegu TUVISA entresa paramunizipalaren flotan. Lotsagarria da euskararekin hauek duten jarrera eta zeresan handia du horretan gurtian gure Udal maitagarriak.



Nomenclator du izena Foru Aldundiak argitaratu berri duen liburuxkak. Hori badakizue, izan ere, azken aleetan behin eta berriz errepikatu baitugu. Ez dakizue, baina, liburu hori jada zaharkitua geratu dela, eta hori postekoa da. Postekoa zergatik? Bada argitaratu denetik anitz izan direlako bere izenak euskaratu dituzten herriak. Adibide bezala honako hauek: Abetxuko eta Zerio (Vitoria-Gasteiko udalerria), Jokano, Uribarri-Kuartango eta Urbina Eza (Kuartango), Ametzaga Zuia (Zuia), El Burgo-Burgelu (El Burgo-Burgelu), Etxegoi (Aizara).

Ziur dagoeneko gehiago direla. Hala bedi.

Odola bihotzean... eta buruan! /

Asier Pz. de Karkamo
(argazkia: El Correo)

Probokazio bila etorri eta probokazioa aurkitu. Are gehiago, buruan zauria ere probokatu zioten. Euskal Herrira bueltatzen denean, oporretarako ezpada, birritan pentsatu beharko du honek zeinekin eta zertara hurbiltzen zaigun.

Elizan gorde behar izan ziren (Frankorekin bezala, Jainkoa lagun) bizkarzaintzat izan zituzten poliziak gutxi suertatu baitzizaien. Polizi horiek, bestalde, arma eta guzti sartu ziren elizan eta hori, oker ez banaiz, pekatu omen da.

Bestela, ohikoa: kolpatuak betikoak, kolpatzaileak betikoak, eskolatuak betikoak, eta galtzaile: Euskal Herria.

Noiz arte?



fotonotizia



kalea mintzo

TESTUAK: NAGORE ZEBERIO ARGAZKIAK: ANIA IBISATE



MANUEL FERNANDEZ
LANTZARREA

1.- Niri gehiegizkoak iruditzen zaizkit. Kontsumo izugarria da eta gainera saletxeek prestatuak izan oohi dira egun horiek.

2.- Hala ere, gure gizartean jendeak ospatzen dituen jaiak dira. Geroz eta gehiago.

1.- Urtean zehar jai mordoxka izaten ditugu opariak egiteko: San Balentin, Amaren eguna...

Gehiegizkoa iruditzen al zaizu?

2.- Gure gizartea kontu hauetan murgilduta dagoela, edo kasurik egiten ez diola, zer uste duzu?

OPARIAK

Urteari so egiten badiogu, nahiko jai daudela konturatzen gara. Agian ez nahi ditugun guztiak, baina badaude ospakizunak, bai. Gainera hauetan opariak egiteko ohitura zabaldua dago gaur egun; adibidez jar ditzakegu Aitaren eguna, Amarena, San Balentin... Gauza da beti dagoela zerbait erosteko aitzakia eta, bide batez, dendaz denda ibiltzekoa. Jendeak askotan kontu hauei denei aurpegi txarra jartzen die, baina ordua iristean kopuru handia da opariak egiten jarraitzen duena. Beraz, zer da gizarteak benetan pentsatzen duena?



LYDIA MANTECON
ALPARRAIA

1.- Modako zenbait gauza erostera behartzen gaituztela dirudi eta birritan pentsatu barik, erosten ditugu.

2.- Duela urte batzuk mar-goak eta liburuak nahikoak izaten ziren, eta gainera horrela gure irudimena landu genezakeen.



DUKKOR
LANTZARREA

1.- Ondo dago noizbehinka opariren bat jasotzea; urtebetetzean edo... Baina urtean zehar ospatzen ditugun festa txoro bakoitzean...

2.- Gizartean orokorrean argi dago ospatzen dela, nahiz eta gehiengo horren aurka egon.



IKER URIARTE
LANTZARREA

1.- Amaren eguna, Aitaren eguna...; larregi dira. Konturatu egiten gara, baina ez gara sekula helduak izango gai hauen aurrean.

2.- Gasteizen, behintzat, dendak bete-beteak ikusten dira egun hauek iristerakoan.



ISABEL RODRIGUEZ
LANTZARREA

1.- Argi dago baietz. Gai komertziala da guztiz.

2.- Gasteizen bai, behintzat. Publiko osoak ospatzen ditu orokorrean. Ez nago kontra, bakoitzak egin dezala nahi duena, baina jakin dezatela amarru hutsa dela.



MARI PUI GUTIERREZ
LANTZARREA

1.- Gehiegizkoa da, eta honen guztiaren atzean saltegiak daude.

2.- Badirurdi gizarteak eta bizitzak berak behartzen gaituztela egun finko batzuetan zenbait opari, beharrezkoak ez direnak, erostera.

EZ EROSI ZURE PROGRESIBOAK ITSU ITSUAN



ZERBITZU OPTIKOETAN
1a

Urrutira eta hurbilera betaurreko berekin bikain ikusteko ez dira aski kristal progresibo onak. Hoberenak behar dira: VARILUX, oso ongi graduatuak eta aditu batek egokituak: MENDIA OPTIKA.

Horregatik, VARILUX MENDIA OPTIKAZ fidatzen da eta MULTIOPTICASek VARILUX gomendatzen du.

Ez erosi itsu itsuan.



MULTIOPTICAS kreditu txartelarekin ordaindu nahi duzun mendia optika



Larunbat arratsalde zabalik: 5.00-8.30

MENDIA OPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS


Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
VITORIA-GASTEIZ

VARILUX BEZALA, FIDA ZAITEZ MULTIOPTICASekin



1 x 2 =
2

2000 BAGARA
4000 IZAN GAITEZKE



HARPIDEDUN!:

zure aita, ama, anaia, arreba, iseba, osaba,
lehengusua, lehengusina, semea, alaba,
aitona, amona, iloba, berramona, berraito-
na, biloba, aitagiarreba, amagiarreba,
suhia, erraina, lagun eta ezagunak...

**EGIN ITZAZU
HARPIDEDUN**

PASAIEZU TXARTELA, BETE DEZATEN

Izen-deiturak _____
Telefona _____
Helbidea _____
Kodea _____
Herria _____
Jaiotze data _____ Lanbidea _____

Urteroko kuota: 1.800 pezeta

Kontu zenbakia (20 zenbaki)

Entitate: Sukurtsala K.D. Kontu zenbakia _____

GEU GASTEIZ ALDIZKARIA
PEDRO AGUA, Z. BA.
01008 TFNOA: 22 21 53

geurekin



Ausartu zaitezte!

Lau urte daramatzate Geurekin Mendira taldekoek hilerik hile, txangoz txango, naturaz euskaraz gozatzen. Eta zuek, zergatik ez? Animatu zaitezte irteeraotan parte hartzera! Ohiturarik ez duzula? Lasai ibili, hartuko duzu eta. Gehiegi nekatuko ote zaren beldur? Ez kezkatu, hasierako kontua baita. Bota egokirik ez duzula? Ez da arazoa, orain beharpenak daude eta. Edadetua zarela eta...? Gaztea zarela eta zure adineko inor topatuko ez duzula? Trankil, adin guztietako lagunak biltzen dira eta. Beraz, ikusten



duzuenez, ez dago aitzakiarik Geurekin Mendirakoek hilero antolatu ohi dituzten irtenaldietan esku (edo oina... hanka?) ez hartzeko. Ikusi, bestela, honako argazki hauetan aurki daitekeen giro aparta. Mugitu gorputza, hortaz, eta astindu mingainak, euskaraz, malda-rik malda, zahatoz zahato...

ITVRRRIETA

Sagardotegia

ITVRRRIETA

ARRAGA AUZOA - Tfnoa. (945) 44 53 85
ARAMAIO

SAGARDOTEGIA

Ezkerreko orrialdean.

Goiko argazkia: 1.997. urtearen bukaeran, Toloñora egindako irteeran. Hitzak soberan daude. Ez al du merezi?

Argazki tikia: 1998ko abenduko irtenaldia. Gatzaga, Arluz, Andarto, Urkulu... Degurixa argazkian.

Orrialde honetan:

Ezkerrean: Hara Bada, Araba da. Irtenaldi batzuk kotxez, besteak autobusez... Eta noizko bizikletaz?

Eskuinan: 1996an Kurutzebarri mendiko tontorrean.

Behean: 1997an Arraban, jan eta jan



GEU rekin MEN DIRA

martxo

Batzikabo
(1.199 m)



Ibilbidea: Barrio herritik abiatuko gara, Batzikabo mendia igo eta handik Negrarora, bertan bukatzeko.

martxoaren 14an

goizeko 9:30etan Txapela tabernan Itzulera: Sak aldera.

Autobusez joango gara.

Edozein argibidearako deitu telefono honetara: 945 26 68 12 (Bego)

GEU elkartea eta Cen Gasteiz aldizkariaren ekimena

Guztiona delako, denok Mendizorrotzara

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN JAIA BIGARREN ALDIZ GASTEIZEN

Euskal Autonomi Elkarteko Gurasoen Elkarteak VIII. Euskal Eskola Publikoaren Jaia egin zuten martxoaren 14an Mendizorrotzan, Gasteizeraino milaka eta milaka lagun hurbildu zirelarik guztion den



eskolaren eginkizuna aldarrikatzeko. Denon erantzuna lelopean goizeko lehenengo orduetatik gaua heldu arte hamaika ekitaldi, puzgailuak, rokodromoa, ludoteka, jolasak, ipuin kontalariak, erakusketak, tailerrak... antolatu ziren bertan txikiek, eta ez hain txikiek, egun zoragarria igarotzeko.

Gure burua ezagutzeko bidean

BAGAREK ETA ITURRI ESPRESAK GAU ESKOLA INTERESGARRIA PRESTATU DUTE

Ikaste prozesuan askotan ageri da gure euskal erreferentzien ezagutza gabetasuna hainbat esparrutan: historian, ekonomian, kulturean... Zein puntutarako ez ditugu ezagutzen Euskal Herriari eragin dion arazoak zein aldeak? Hau gainditzeko asmoz, Iturri enpresak ikastaro desberdinak prestatu ditu Euskal Herri osoko hainbat tokitan aurrera eraman asmoz. Ikastarook irakasle unibertsitarioek zuzenduko dituzte eta jorratuko diren ikasgaiak benetan interesgarriak suerta daitezke.

Gasteizen Bagare Euskal Tokiak bere gain hartu du gau eskola honen antolaketa esfortzu handia eginez. Plazak mugatuak dira, 20 bat lagunentzat, orduan argi ibili. Informazio gehiago Bagaren bertan eskura dezakezu.

Bagarek eta Iturri enpresak antolatutako gau eskola hau bi zatitan banatzen da. Lehenengoa, apirilean eta maiatzean gauzatuko dena, eta bigarren zatia, urritik aurrera. Klaseak asteazkenetara, apirilaren 14an hasita. Lehenengo zatiaren gaiak hauexek dira: Euskal kultura eta kultura herrikoia, Euskal eskola, Euskal Herriaren Historia, Globalizazioa eta Euskal Herria, Euskal <<Intelligentsia>>, Gizarteratzearen fenomenoak eta Nazio arazoa eta gizarte klasea. Irakaslegoaren artean Josu Amezaga, Tito Rodriguez, Paulo Iztueta, Alicia Sthürtze, Manex Goienetxe, Antxon Mendizabal, Xabier Apaolaza, Mikel Urkola...

Eskolak hasi baino lehen materiala banatuko da, ikasle bakoitzak prestatzeko, ondoren klasean gaiak eztaba ditzeko. Ikasteko dinamika honi esker ikaslegoaren interesa hobeto bidera daiteke.

Amodiozko bigarren saria Gasteiza

Gasteizen badaukagu amodiozko gutunak idazten dakienik, Josu Andoni Arenaza gasteiztarrek Bergarako Amodiozko Gutunen VII. Berrigara Lehiaketan bigarren saria eskuratu zuen eta. Bere idazkian hiltzearen dagoen zahar bakarti baten sentimenduak agerira ateratzen dira maite izan zuen neskarikin joan ez zelako aukera iritsi zitzaionean.

Aurtengo edizioaren irabazlea Getxoko Xabi Larrañaga izan zen. Eta amodiozko gutuna honako hau: patera batean Tarifara heldu behar duen etorkin batek bere maiteñoari idazten diona.

Berrehun baino lagun gehiagok hartu zuten parte honako lehiaketa honetan. Andoni Egaña, Jasone Osoro, Juan Mari Elixpuru eta Gari-kantz Berasaluzeko epaimahaikideen ustetan batetik gutunak kalitate onekoak izan dira oro har; bestetik, erotis-



moa ez da apenas ageri, umorea ez da lantzen eta beste edizio batzuekin konparatuz harreman homosexual gutxi azaltzen dira. Kartzelatik bidalitako gutunak ugariak direla adierazi zuten.

Sarien banaketa San Balentin Egunean egin zen, "Tribuaren hitz galduak" Mikel Markez eta Pako Aristiren ikuskizunaz ekitaldia girotuz.

Ardatz itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana kalea, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

PUBLIZITATERIK MERKEENA
ETA ERAGINKORRENA

G E U
GASTEIZ

PEDRO ASUA, 2. 3A.
22 21 53

Adurtza Dantza Taldeak 25 urte bete ditu dagoeneko

EUSKAL KULTURAK UNE GOGORRA BIZI ZUENEAN SORTU ZEN

2 5 urte bete ditu jadanik Adurtza Dantza Taldeak. Urteurrena iaz izan bazen ere, arrazoi desberdengatik aurten ospatuko dute.

Ospakizunerako dantza muntaia berri bat prestatzen ari dira, non Nafarroako dantzak diren nagusi. Emanaldia martxoaren azken asteburuan egingo da Hegoalde Gizarte Etxeko antzokian, bertako antzezlanak amaitu badira.

Dantzen emanaldia ezezik, herri bazkaria eta argazki erakusketa ere prestatuko

dituzte. Egokia azken hau talde honen historiari gainbegirada egiteko.

Orain dela 25 urte euskal kulturak une gogorrek bizi izan zituen. Taldeko sortzaileek ondo gogoratzen dituzte garai horiek. Adurtzako Gizarte Etxean gazteek klub bat eratu, eta biltzen hasi ziren beren ideei irtenbidea emateko. Dantza taldea izan zen ideietako bat. Geroxeago taldearen inguruan txistu eta euskara eskolak dohainik ematen hasi ziren. Adurtzako euskarazko gau eskola erreferentzia ona izan da hegoaldeko auzoetan euskara ikasi nahi izan duten ororentzat.

**Euskal Herriko herri eta
gizarte mugimenduen
gida bukatu du dagoeneko
Joxemi Zumalabe Fundazioak.
Euskal Herriko mila eta
bostehunetik gora talde biltzen
ditu, haien guztien artean
elkar-ezagutza eta elkarlana
bultzatu asmoz.**

DENETAN HANDIENA

Gaur Adurtzako Gasteizko dantza talderik handiena daukagu. Haurrak, gazteak eta helduak batzen dituen. Auzo bizi-tza egin duenak derrigorrez ezagutu behar duen taldea. Oso herrikoia izan da betidanik, eta gaur lehen bezala jarraitzen du hainbat ekitaldi antolatuz: Olenzero, Agate Deuna, Errege Magoen auzoko desfilea, auzoko jaietan ere parte hartu ohi du eta bere kideek bestelako ekimenduetan esku hartzen dute. Zorionak Adurtza Dantza Taldeak!



EL BAR Kutxi

eguneko menua



ARTEPAN

Artisau
Okindegia
eta Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ



BEIRATE ESTUDIOA

Txikita kalea, 1
Tfno. 14 64 10
GASTEIZ

MIKEL DELIKA

TXUSTA

TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**

Mateo Moraza kalea GASTEIZ

HAUEK ERE BAI...

MIREN GOJENOLA Aldizkari	JOHN PATRICK Irakurlea	PAZTI EUGI Aldizkari	MARIA HERNANI Euskarazkaria	XABIER EUSKIZTE Batzarburua eta irakurlea
TXETXU UGALDE Irakurlea	DIAR OREXA Auzoaren irakurlea	JOSE ELORRITA Euskarazkaria	JÜRGEN LANGE Zuzenbidearen irakurlea	FEDIM MUGURUZA Aldizkari
ANDOLIN EGUZKITA Irakurlea	MAITE OSABA Batzarburua	ALFREDO ELORZA Irakurlea	JOSE MARIA ARRATE Aldizkari	GABRIEL PETRIATI Aldizkari
LENILO LERTXUNDI Aldizkari	ZIORTZA SARRIONANDIA Euskarazkaria	ELENA ANDUEZA Aldizkari	MIKEL LASKURAIN Aldizkari	ALAIN MICHEL Irakurlea

**...esan zeuk ere
BAI EUSKARARI!!
izena eman
euskaltegi eta batzategietan**

MELGUIZO ETORKIZUN
HANDIKO ARTISTA

Joserra Melguizo Trayecto
Galeriako artista daukagu.
Argazkilaritzaren iturritik
edanez bere artelanak
mimo egiten ditu. Horieta-
ko bat, Cargado de Lengua-
je, ARCO azokan ikusgai
izan zena. Bi metro karratu-
tako irudian biluzik ager-
tzen zaigu bera, kutxa bat
eramanez; gizakia eta natu-
raren artean hizkuntza bat
dagoela adierazi nahi du
Joserrak. Gasteizko artista
honek ez dio hainbeste
garrantzirik ematen ARCO
azokan bere obrak aurkez-
teari, azken finean ARCO
galerien azoka bat delako
eta salmentak du lehentasuna,
ez artisten arteko hartu-
emanak. Hala ere, etorkizun
handiko artista izan daite-
ke; Estatuko beste hiru
artistekin batera obra bat
izan du erakusgai Madrilgo
Amadis Aretoan egunotan,
gero Hegoamerikako hain-
bat herritako hiriburuetara
eramango dena.



hizkuntza

EUSKARA MINGAINEAN, JANTZI ZAPATAK ETA ATERA KALERA

Badator Korrika



Euskal Herriko bazter guztietara helduko da berriro 2 urtetik behin antolatu eta hain gogoko dugun Korrika. Martxoaren 19tik Iruñean hasi eta hamar egun geroago, gure errepideak zeharkatu ondoren, Donostiara iritsiko da euskararen lekukoa, Korrika.

Edozein ordutan da posible Korrikan parte hartzea, ez dago aitzakiarik, gogoia baino ez da beharrezkoa edonork euskararen arineketan esku har dezan. Gure lurraldea hiru aldiz bisitatuko du Korrikak, 300 bat kilometro Araban gaindi ibiliz. Arabako euskaltzaleok kilometro horiek guztiak jendez bete behar ditugu, ez dio axola non:

Gasteizko
kaleek
hilarren
25ean
agur
esango
diote
euskararen
maratoiari

Araba Errioxan, Mendialdean, Aiaran, Bailaretan, Trebiñon zein Lautadan... Kontua da kilometroz kilometro, egunetik egunera lagun batek lekukoa hartzeko prest azaldu



behar duela. Hau baita gure erronka, non islatzen den euskararekin dugun konpromisoa. Hitz egin eta Korrika egin. Kilometroak erosteko Arana euskaltzalea joan eta hortan informatu.

Korrikaren 11. edizio honetan antolatzaileek begi onez ikusten dute

BASERRITAR ERAKO ALTZARIAK
berreskuraturiko egurrez eginak
eta **OSAGARRIAK**
artisau lanak, lorategi eta
barrualdeko-proiektuak egiten ditugu



Errementari (HERRE) 38, behea tfnoa.: 25 25 03 01013



BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 43 00 73



euskararen etorkizuna, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren eskutik gure hizkuntzaren normal-kuntzarako jarri diren oinarri sendoei esker. Euskararentzat XXI. mendea hasi da dagoeneko; oinarri sendoz hasiko dugu normalkuntzaren mendea, azpimarratzen dute AEKko kideek.

1+1= 11. Zu eta ni euskaraz

Euskara berreskuratzeko guztion konpromisoa beharrezkotzat jotzen dute Korrikako lagunek. Bakoitzaren eta talde guztien lana ezinbestekoa da gure hizkuntza bizirik mantentzeko. Gehiketakari xaloena; bat gehi bat, hamaika bihur daiteke. Hamaika

lagunek aspaldidanik hartu zuten euskaraz egiteko konpromesioa bere gain, eta hamaika gehiago izango dira datozen urteetan hartuko dutenak.

AEKk, 11. Korrikaren leloarekin bat eginik, hamaika pertsona eta kolektibo hautatu ditu bere omenaldia haiei eskaintzeko. Horien artean

Kamisetak,
txamarrak,
forroak,
aterkinak,
sedaderak,
treking
prakak,
diskoak,
agendak,
karterak...
eta
galtzontziloak!



Korrika Gasteizen



Km-0. Eroski.
Km-1. Mercedes lantegia.
Km-2. Mendebaldeko institutua.
Km-3. Apaiztegia.
Km-4. Txile eta Argentina kaleek egiten duten bidegurutzea.
Km-5. Tomas Zumarraga Dohatsuen kalea, Ahua autoeskolaren aurrean.
Km-6. San Martingo futbol zelaia.
Km-7. Ezkibelgo Gazteluaren kaleak Gaztelako atearekin egiten duen bidegurutzea.
Km-8. Ciudad de Vitoria hotela-Florida parkea.
Km-9. Manuel Iradier kalearen hasiera.
Km-10. Izardui komandantearen eta Nieves Cano kaleek egiten duten bidegurutzea.
Km-11. Heracio Fournier eta Adurtza kaleek egiten duten bidegurutzea.

Km-12. Triana eta Florida kaleek egiten duten bidegurutzea.
Km-13. Olagibel eta Jose Mardones kaleek egiten duten bidegurutzea.
Km-14. Judimendi hiribidea, Arana auzoko elizaren aurrean.
Km-15. Herrandarrak eta Ballester Apezpikuaren kaleek egiten duten bidegurutzea.
Km-16. Nafarroako Errege-Erreginen eta Fermin Lasuen kaleek egiten duten bidegurutzea.
Km-17. Los Angeles taberna.
Km-18. Frantzia kalearen erdialdean.
Km-19. Bake eta Posta kaleek egiten duten bidegurutzea.
Km-20. Alava Jeneralaren eta Eduardo Dato kaleek egiten duten bidegurutzea.

Km-21. Txusta taberna.
Km-22. Aitzogile kalearen 'Kutxi' sarreran, Farihan.
Km-23. Aldabe Gizarte Etxea.
Km-24. Foru Aldundiaren atzealdea.
Km-25. Lovaina plaza.
Km-26. Domingo Beltrani eta Badaia kaleek egiten duten bidegurutzea.
Km-27. Domingo Beltrani eta Peru kaleek egiten duten bidegurutzea.
Km-28. Arriagako ateak eta Arriaga parkeak egiten duten bidegurutzea.
Km-29. Zogai Katanga.
Km-30. Abetukoko sarreraren.
Km-31. Abetukoko ikastola.
Km-32. Ekume erretegia.
Km-33. Canara enpresa.
Km-34. Zadorra Karrozeria.
Km-35. Gamarrako eliza.

LIBURUDENDA

axular

Arka plaza, 11 - 01005 GASTEIZ



Xabier

taberna

musika ona
eta giro
ezinhobea

Aitzogile (KUTXI), 23

gure gasteiz



bi ordezkari arabar ditugu; Laudioko ikastolaren sortzaile taldea, zeinek beste askok bezalaxe garairik beltzenetan euskararen sua piztuta mantendu baitzuten, eta Mendia Optika,

euskalgintzako ekimenak sustatzeko betidanik lagundu izan duen enpresa. Hauez aparte Argiñe Iturregi, Sestaoko irakaslea; Euskalerria Irratia, Iruñean euskaraz ari den komunikabidea; Arantza, Nafarroako herri txikia eta euskalduna; Maiatz, Iparraldeko kultura taldea; Pedro Migel Etxenike, zientziari nafarra; Jose Ramon Etxebarria,

Unibertsitate munduan hainbat material euskaraz sortu zuen gizona; Jose Angel Iribar, Athleticeko atezain ohia; Maitena Araguas, Zuberoako gau eskolako irakaslea eta Etxepe, euskararen normalizazioaren bidean aitzindaritza erakutsi duen enpresa.

TESTUA: RAUL SAEZ DE BURUAGA
ARGAZKIAK: EDORTA SANZ



Arabako Korrikaren inguruko ekitaldiak

Auzoz auzo, herriz herri AEKko lagunek euskararen oihartzuna hedatu nahi izan dute. Gasteizen auzo guztietan batzordeak eratu dira Korrikak merezi duen harrera prestatzeko. Batzorde horiek buru-belarri ibili dira Korrikaren etorrera iragarri asmoz. Propaganda banatzea eta egitea, "Korrika lagunak" bilatzea saletxez saletxe, auzokideen artean diru-biltzea egin, eta ahal izan den neurrian ekitaldiak antolatzea izan dira batzordeon lan ardatzak. Hala ere, hainbat auzotan lan hau biderkatu dute haiek horrela nahi izan dutelako.

ARABAR ERRIOXAN: Afari bat.

LAUTADA-AGURAIN: Joan den hilean sagardo festa, Txan Handia magoa eta kontzertua.

KANPETZUN: Martxoak 20: Korrika txikia eta bertso afaria.

LAUDIO: Martxoak 11: Kontzertua.

Martxoak 12: Hika antzerki taldea Arraultz delikatuak.
El Buho aretoan.

Martxoak 17: Nandusen hitzaldia Alaskatik Suaren lurralderaino.
Berbotx euskaltegian.

Martxoak 24: Nikaraguari buruzko hitzaldia. Agustin Leturiaga.
Kultur Etxean, 19:30etan.

Martxoak 25: Antzerkia. Tu quique fili. Korrikari buruzko parodia.
El Buho, 20:00etan.

Martxoak 26an: Jon Maia eta Igor Elortza.

AMURRIO: Martxoak 20: Rock kontzertua. Sutagar.

Martxoak 21: Hika antzerki taldearen Arraultz delikatuak.

Martxoak 23: Diapositiba emanaldia.

Martxoak 24: Txan Handia Magoa eta Xilipurdi taldearen txontxongiloak.

Auzo guztietan diru-biltze egunak musika, hankapalo, malabaristez... girotu dira. Gehienak martxoaren 13an eta 14an izan dira. Hona hemen egindakoa: Judimendin txistorrada, haurrentzako jolasak, auzoko korrika prestatu, Korrika handiaren aurkezpena eta kalejira; Txagorritxun bizikleta martxa martxoaren 13an; Abetxukon herri bazkaria martxoaren 14an eta hitzaldi bat asten zehar; Aranan antzezlan bat, auzokideek antolatua; Alde Zaharrean pintada handi bat, eta hala auzorik auzo...



Angel Olalde Buka. Korrika guztietan parte hartu du

“Euskararen alde kilometro bat korrika egitea ondo dago”

Zer da zuretzat Korrika?

Gauza berezi bat. Batetik, Korrika guztiak eta emandako urratsak bizi izan ditudalako, eta bestetik, hamar egunez Euskal Herri osoa zeharkatzen duen ekitaldi bakarra izanik, nik uste dut esanahi berezia duela, ez bakarrik niretzat, baizik eta herritarrontzat.

Konpara al daitezke lehengo Korrikak azken urteetakoenekin, ba al dago desberdintasunik?

Desberdintasunak egon badaude, baina antolaketan eta Korrikak gaur duen pisuan. Lehen zegoen izpiritu bera dago. Korrika kulturalak beste zera bat eman dio Korrikari. Kultura arloa askoz ere gehiago lantzen da. Eta jendeak esku hartzeko bestelako aukerak eskaintzen ditu, ez bakarrik korrikaldian, baizik eta lehendik egiten diren ekitaldi eta halakoe-tan. Alde horretatik asko abe-



rastu da Korrika.

Non egin zenuen Korrika lehenengo aldiz?

Opakua mendatean.

Eta non egingo duzu Korrika aurten?

Gasteizen seguruenik, herrira joaten saiatuko naiz eta dudarik ez dago Donostian azken kilometroetan hantxe egongo naizela.

Hainbeste urtez geroztik, seguraski bitxikeriaren bat izango duzu gogoan...

Asko dago. Behin zaldiz zihoan batek lekukoa hartu behar zuen, baina bere zoritxarrerako hortik zebilen per-

tsona batek suziri bat bota eta zaldia aztoratuz zalduna lurrera erori egin zen; zaldunari ez zitzaion ezer gertatu baina ezin izan zuen kilometroa egin, Korrikak aurrera jarraitu behar zuen... Furgonetatik lagun bat atera, lekukoa jaso eta korrika segi. Hori da Korrikaren ezaugarrietako bat, ez da inoiz gelditzen.

Nola gonbidatuko zenuke jendea Korrikan parte har dezan?

Esperientzia polita da euskararen alde kilometro bat egitea, horrek duen sinbologia kontuan hartuta. Gaur

egun inkestek esan ohi eta kalean sentitzen denaren arabera, ia-ia ehuneko ehuna euskararen alde dago, euskararen berreskurapenaren alde; kilometro bat euskararen alde noiz-behinka egitea ondo dago. Eta korrika egin behar da, euskara berreskuratzeko presaka ibili behar da. Horre-

kin ados egonik, edonork parte har dezake.

Korrikak urtez urte hobetu egin du, nola hobetu du AEKk urteotan?

Duela hogeitaz urte ez zegoen testurik, ez zegoen gauza asko, baina bolondresko gauzak ere egiten ziren. Orain metodologia asko aurreratu da. Kontuan izanda jendeak ikasi behar duela, kristoren garrantzia ematen diogu gure metodologia eta irakaslegoaren prestaketari, eta honi behar bezalako munta emanik jendea denbora gutxian euskalduntzen saiatzen gara.



GASTEIZKO BATZOKIAK

ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDANO

ERDIALDE

LAKUA

ZARAMAGA

Udaleko aukera berdintasunerako eragilea da. Emakunden lanean ibilitakoa da eta emakume taldeen lana eta jarduera ere ondo ezagutzen ditu. Martxoaren 8rako, Emakumearen Nazioarteko Egunerako, Gasteizen prestatutako ekitaldien egutegia azaldu, Emakumearen arloa sexu parekotasunerako plangintza lantzen ari dela aurreratu eta feminismoari buruz bere ikuspegia eman digu.

TESTUAK: LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI ARGAZKIAK: EDORTA SANZ

behar dugu

REINA ruiz

ein da sexu parekotasunerako plangintzaren abiapuntua?

Sexu parekotasunerako plangintzak datozen lau urteotan Udalak martxan jarri beharreko neurriak hartuko ditu, baina ez soilik Emakumearen Sailaren ikuspegitik, genero kontua ezin baita Emakumearen Zerbitzuan bakarrik landu. Plangintzak esaten duena da Udalaren programa, politika eta ekimen guztiak genero ikuspegia kontuan izanda prestatu behar direla. Enpleguari buruzko plana egiteko orduan, adibidez, emakumearen langabezia gizonezkoenaren bikoitza dela kontuan hartu beharko da; eta gauza bera beste alor guztietan: osasuna, kirola, ongizate soziala, barne funtzionamendua...

Emakumearen Sailak plangintzaren zirriborroa egin eta gero alderdi politiko, sindikatu eta emakume taldeekin batera landu genuen, xedea guztiok zerbait eman eta bat jartzea baita. Apirilean aurrera ateratzeko asmoa dugu.

Plangintzak bigarren helburu bat ere badu. Izan ere, Emakumearen Sailak emakume oso kolektibo zehatzarekin lan egin du orain arte: bortxatuak, tratatuak, txarrak jasotakoak, nahiko egoera marginalean daudenak... Baina emakumearen diskriminazioa ez da horretan amaitzen, emakumeok egun oraindik gizonekin alderatuta marginatuta baikaude, nahiz eta gure egoera ez horren marginala izan.

Beraz, lan esparrua zabaltzeko egingo da?

Horixe da. Emakume guztiengana iritsi nahi da, eta baita gizonengana ere. Gai honen inguruan, gainera, Gasteiz atzeratu samar doala esan behar da. Bilbo, Donostia eta Iruñean sexu berdintasunerako plangintza

Oztopoei stop

Beste oztoporik gabe da Gasteizko Martxoaren 8a Koordinakundeak aurtengo Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko aukeratu duen leloa. Kartelak emakumeak XX. mendean barrena gainditu behar izan dituen oztoporik esanguratsuenak erakusten ditu: botua emateko eskubidea, eskolaratzea, bizitza publikoan leku bat izatea, lan merkatuan sartzea, rolak deusezteza, bizitza politikokoan parte hartzea...

Koordinakundeak otsailaren 22an hasi eta martxoaren 25a arte iraongo duen egitaraua prestatu du: hitzaldiak, erakusketak eta filmak. Gaiak heziketatik hasi eta zientziaraino hedatzen dira. Tartean Calcutako emakumeen egoera, bularreko minbizia eta emakumeen aurkako bortxa fisikoa, besteak beste.

Reina Ruizek adierazi duenez, egitarauan agertzen diren gaiak Koordinakundearen parte hartzen duten emakumeak bezain anitzak dira.

Ziurrenik gai

MARTXOAREN 8A KOORDINAKUNDEAK:

AMAGIOIA ELKARTEA, GURE SOROA ELKARTEA, GIZARTERAKO ELKARTEA,
ARABAKO EMAKUMEEN ASANBLADA, MARIA DE MAEZTU FORUM FEMINISTA,
ARABAKO LESBIANEN ELKARTEA, EMAKUME ALARGUNEN ELKARTEA,
MASTEKTOMIA JASANDAKO EMAKUMEEN ELKARTEA.

guztia interesgarriak deritzon emakumerik ez da egongo, baina emakume gehienek ekitaldi interesgarriren bat aurkituko dute.

Emakumeentzako Udal Zerbitzuak lau film eta iaz ezagun egin zen "Non dago zure laranja erdia" erakusketara antolatzeaz gain, emakume taldeak elkartu, koordinatu eta babes ekonomikoa ematen die. Batetik bilerak egiten ditugu gaiak ez errepikatzeke gehienbat. Eta bestetik, dirulaguntzak ematen zaizkie bi eratara: beraiek prestatzen duten egitaraua aurrera eramateko eta Udalaren aretoak doan utziz.

Gasteizko Koordinakundeak egiten duen lana oso ona dela uste du Emakumeentzako Udal Zerbitzuaren teknikoak, hain zuzen ere oso anitza delako. Emakume mota asko dago bertan ordezkatuta: lesbianak, alargunak, minbizia izandakoak, nekazaritza ingurukoak... Ruiz Bobesen ustez emakumeen kolektiboa gero eta zabalagoa da zorionez, bikotedunak eta bikoterik gabeak, seme-alabak dituztenak eta ez dituztenak, langileak eta langabezia daudenak... Aniztasunaren eraginez irizpide eta arlo gehiago hartu behar dira aintzakotzat emakumeei buruz hitz egitean.

onetsita dute, baita beste hainbat herritan ere: Durango, Ermua, Eibar...

Lehenengo plangintzak martxan jarri zirenetik helburuak asko aldatu al dira?

Emakunde da plangintza bat baino gehiago burutu duen erakunde bakarra eta aldaketa bat egon dela argi ikusten da. Plangintzak betetzen joan dira, ez agian ehuneko ehunera, baina garapen bat egon dela ikusten da.

Dena den, nire ustez, gauza horiek kaletik begiratu hobeto ikusten dira eta nik aurrerapauso bat eman dela argi ikusten dut. Plangintzak martxan jarrita ere, mentalitate aldaketa behar-beharrezkoa da benetako garapena eman dadin, eta hori oso prozesu motela da.

Zuk uste duzu mentalitate aldaketa hori dagoela?

Nire ustez, arlo publikoan, bai. Hezkuntzaren munduan daukagun presentzia adibidez nabarmenki igo da, politikan ere gero eta emakume gehiago dago, baita lan munduan ere. Arazoak arazo eta oztopoak oztopo sartzen ari gara...

Arlo pribatuan aldaketa egon denik, berriz, ez dut horren argi. Maila pribatuan heziketak, usadioek pisu handia dute eta arazo pertsonalak sortzen dira, bikoteen arteko istiluak... Aldaketak zailagoak eta motelagoak dira.

Emakundek lehenengo plana 91ean baietsi bazuen, erakundeek zortzi urte baino ez daramate arlo hau lantzen. Zer nolako garrantzia izan dute zure iritziz emakume taldeek?

Arlo honetako borroka emakume taldeek hasi zuten eta beraiek bultzatuta sortu ziren Emakunde bezalako erakundeak eta emakume sailak erakundee-tan.

Eta ez al dira borroka horretan apur bat erre? Egun ez al dirudi gizartearen sektore batek feminista hitza baztertu nahi duela?

Bai, baliteke. Baina arazoa ez da izan beraiek egindako lana, baizik eta feministek esandakoa gaizki ulertu nahi izan dela. Feministek sekulan ez dute nahi izan egungo egoerari buelta eman emakumea goiko puntan dagoen gizarte hierarkizatu bat sortzeko. Beraz, emakume talde batek andrazkoen aukera berdintasun eta eskubideen alde egitean, jarrera feminista bat du, nahiz eta hitz hori nahita alboratu.

Emakumeen agindupean dagoen gizarte hierarkizatuaren aldeko ideologia ez da feminismoa, "henbrismoa" baizik, baina uste dut ez dudala sekulan emakume henbristatik ezagutu eta ez



dut uste hori lortzea inoren helburua denik.

Azken finean, pertsonen mundu batera jo behar dugu, ez dugu generoek markatutako mundu bat nahi. Sexua jaiotzez daukagun gauza da eta berez ez du ezer baldintzatzen. Generoa da baldintzatzen duena: jaioberritan neska ala mutila den ikustean gainera erortzen zaizkion aurreikuspenak, berari buruz espero dena, eta berak bizitzaz espero deza-keena, askotan desberdina baita neska ala mutila jaio.

Ez dut gehiegi atsegin kupoen ezarketa, baina orain helburu bat betetzen dutela pentsatzen hasia naiz. Hori bai, kupoa zein den eztabaidagarria iruditzen zait.

Hauteskudeak burutik kendu ezin gaudela garai honetan, kupoen politika egokia iruditzen al zaizu?

Sekulan ez dut oso argi izan honako gaia. Eta emango dudan iritzia neurea da soilik: printzipioz ez dut gehiegi atsegin kupoen ezarketa, baina orain helburu bat betetzen dutela pentsatzen hasia naiz. Hori bai, kupoa zein den eztabaidagarria iruditzen zait. Zer dela eta %25? Agian %50 ezartzea izango litzateke normalena.



ETXEA, EMAKUMEAREN ETSAI



Etxeko ardurak gizon eta andrazkoen artean trukatzeko tailerrak izan dira Emakumeentzako Udal Zerbitzuak antolatu duen tailerrik deigarrienetakoa. Tailerraren helburua etxeko lanek sexurik ez dutela erakustea da eta, izena eman duen jende kopuruari kasu eginez behintzat, nahikoa arrakastatsuak izan direla esan beharko da.

46 ordutako tailerra proposatzen zaie izena eman dutenei. Emakumezkoentzako "ikasgaiak" iturgintza, argindarra, pintura eta brikolaia dira; gizonzkoenak

sukaldaritza, josteta, lisatzea eta garbiketa. Ikastaroa etxeko ekologiar buruzko hitzaldiekin borobiltzen da, azken hauek mistoak. Tailer praktikoak dira erabat, adibidez, ikasleek paella bat prestatu behar badute pauso guztiak ematen dira banan banan: erosketetarako zerrenda egin, erosketetara joan, paella prestatu eta erabiltzeko guztiak garbitu. Horrela ez dute paella egiten ikasten bakarrik, baita egunero etxeko hozkailuan aurkitzen duten horiek norbaitek eraman dituela ere.

Kasik egunero plazaratzen diren

estatistika eta datuek diotenez, etxea andrazkoen etsai bihur daiteke lanak banatzen ez badira.

Etxetik kanpo lan egiten duen emakume batek beste bost ordutako jardunaldia du etxean; gizonzkoen kasuan ordubete ingurukoa da etxekolanei eskaintzen zaion denbora. Izan ere, etxekoandrea- ren lana gutxi baloratzearen ondorioz, beraien lana bazkaria prestatu eta oheak egiten amaitzen dela uste du askok, baina etxeko gestio osoa eramatea da: bankura joan,


seme-alaben eskolara, familiako haurrak eta zahar- rrak zaindu...

Beti aipatu den lan jardunaldi bikoitza emakumeok lanean aurrera egiteko oztupoa da, ikasi eta prestatzeko denborarik ez digulako uzten. Eta langabezia dagoen emakumearentzat etxea zama da lana bilatzeko orduan. Andrazkook mundu publikora irtengo bagara, etxeko lanak banatzea oso garrantzitsua da.

piti-pata

txikiaren orrialdeak

GEU GASTEIZ ALDIZKARIA



martxoak 26

Korrika txikia

Jockey-ko izarren bila

Igoni futbola atsegin zaio? Bai, baina honekin denbora asko galtzen zenez, baloi handia txiki baten ordezkari aldatu eta stick baten laguntzaz abiatzen da bere areatik aurkakoen aurretik gola egiteko nahian.

Aurtengo liga hasi beharrean dago, hala ere hilabete batzuk daramatzate entrenamenduekin eta hauetan ez dauka leku finkorik, baina zenbat eta aurrerago orduan eta hobe, golak sartzeko proposagoa baita, ezta?

Saskibaloian "Chicago Bulls" talderik ospetsuena bada, Igonen ustez Jockeyan "Maity Ducks" da, eta zergatik ez!, haien jokaldiak antzeratzea du helburu. Beraz: Aupa Urgatzi!.



HILEKO HILEKO **LAGUNA**

IGONek 9 urte ditu

Urrats txikiak emanez, Korrika handituz

Korrika txikiak hilaren 26an
zeharkatuko du gure hiria

Gure haurrak ez dira inoiz nekatzen eta ziur asko gehienek martxoaren 25ean Korrika handia egin ondoren, hurrengo egunean, martxoaren 26an, ostirala, Korrika txikian parte hartuko dute. Haiengan dago gure hizkuntzaren etorkizuna, haiek dira benetako protagonistak...

Martxoaren 26an 19 ikastetxek esku hartuko dute antolatuko den Korrika txikian. Arratsaldeko 3retan hasi, Jose Mardones kaleko AEKko euskaltegian, eta ordu eta erdi beranduago Plaza Berrira helduz, arratsaldeko 4.30ak aldera, Gasteizko kaleetan gure hizkuntzaren indarra aldarrikatuz.

Esfortzu hau egin ostean jaialdi bat hasiko da Plaza Berrian. Hasteko Korrika txikiaren mezua irakurriko da eszenatokian eta gero, Gasteizko Bertso Eskolaren eskutik, Asier Iriondo bertsolari trebeak idatzi duen "Bertsotan ikasi nahi zuen astotxoa" bertso parodia antzeztuko du. Ondoren erromeria hasiko da.

Bitartean plazan hainbat txoko egongo dira, non umeak jolasteaz gain, rokodromoan, herri kiroletan eta abarretan arituko diren. Giroa bertzeko musika ere ez da faltako. Korrika txikia kartelen bidez iragartzeko, AEKko kideek marrazki lehiaketa antolatu zuten hiriko ikasleen artean. Irabazlea Naroa Bilbao, Armentia ikastolako 9 urteko neska, izan zen. Martxoaren 1etik 19ra haurrek egindako Korrikari buruzko marrazkiak erakusgai egon dira Landatxo Gizarte Etxean.

ZER DA ZURETZAK

TESTUAK: Itziar Uriarte

ARGAZKIAK: Edorta Sanz

OSPEA



IMANOL, 10 URTE

Diru mardoa, ondo bizi... eta txarre zoragarriak... eta txarre razziak egunero zure tzea, baina azken hau jasango nuke.



IRENE, 10 URTE

Niri famatua izatea gustatuko litzaidake diru asko irabaziko nukeelako, baina famatik gustatzen ez zaidana, jende guztiak zure aurpegia ezagutzea da.

geugenjeim

Mikel

Ohiane



Aber
Ikas
6-8



VIRGINIA, 10 URTE

Leonardo Di Caprio bezala izatea. Erregea ere ospetsua da erregea izateagatik. Lecquio ere bada, baina aurpegi gogorra dauka jendeaz baliatzen delako.

Kangeuroak

HAURRAK ZAINTZEN DITUGU

GOIZEZ		LORENA	27 10 13
NEKANE	26 91 53	MONTSE	26 78 12
EDUARDO	14 21 99	AINARA	23 38 28
LEIRE	27 32 81	TXARO	28 08 85
LORENA	27 10 13	MAIDER	24 90 62
AINARA	24 04 42	ARRATE	25 64 01
ANA	26 65 95	PATRIZIA	13 93 37
ERETE	29 96 50	UXUE	24 37 11
ARRATSALDEZ		ASTEBYRVAN	
ESTITXU	27 65 07	OLATZ	25 61 20
OIHANA	25 30 35	MONTSE	26 78 12
AINZANE	27 09 64	ARRATE	25 64 01
IRATXE	24 51 81	PATRIZIA	13 93 37
AINARA	23 38 28	LEIRE	23 12 23
LORENA	27 10 13	JOSE ANGEL	27 62 14
PATRIZIA	27 78 19	SAIDA	26 58 05
LEIRE	23 12 23	IDOIA	24 47 79
MAIDER	24 90 62	MAIDER	24 90 62
ESTITXU	27 65 07	BELEN	13 65 10
GAVEZ		MONIKA	13 86 21
ESTHER	27 84 57	ITZIAR	13 86 21
IDOIA	24 47 79	M. JESUS	13 34 35
		ESTITXU	25 99 50

ATAL HONETAN AGERI NAHI BADUZU DEI
HONAKO TELEFONO ZENBAKIRA:
945 22 21 53



Haurrak zaindu nahi badituzu Geu Gasteizek lehio ezinhobea eskaintzen dizu. Deitu gure telefonora eta goiko zerrendan ageriko zara. (945 22 21 53)

Unai Iratxe



Kevin



Abenturazalea, kirolaria ala bizinahia?

Abenturazalea eta kirolaria naiz. Egiten dudana gustatzen zait, eta gainera, dirua ematen dit. Zorte handia dut.

Zamoralakoa, Gasteizkoa ala Madrilekoa?

Mundukoa, Afrikakoa ere bainaiz. Kontinente guztietakoa.

Granada-Dakar lasterketan esku hartzeko dirua behar da.

Bai, gauza guztietan bezalaxe. Merkatal etxeek dirua eskaintzen dizute, baina beti ematen dizutena baino gehiago itzuli behar diezu. Bikoitza edo hirukoitza bada, hobe.

Eta abenturazaleek ez dituzue gezur bat baino gehiago kontatzen?

Egiak ez diren pasadizo asko irakurri ditut. Halere, kazetaria izaten da erruduna, entzuten duena gaizki entzuten baitu. Guri ez zaigu gezurak esatea interesatzen. Nik, esaterako, benetan

esaten dudana gutxitan irakurtzen dut.

Heriotza hurbil izan duzu noizbait?

Nik uste dut ezetz. Agian, beste batzuei galdetu beharko zenieke hori, nire gidakideari, kasu. Nik ez dut inoiz hiltzeko arriskua sentitu, nire alboan zegoenak, aldiz, bai. Hurbilago ikusten dute haiek. **Granada-Dakar Miguel Prietoren droga da?**

Dakar abentura izugarria da, eta horrek harrapatzen zaitu, Gizakiok ez dakigu inoiz non dagoen gure gorputzen muga. Abenturak zigortu eta zahartzen zaitu, ile zuri bat edo beste ateratzen zaizu, baina beti itzuli nahi duzu Dakarrera.

Oporretan Afrikara

Aurten tribu batek gidari batzuk bahitu zituen...

Gidari haiek aske utzi zituztenean, beraiekin egon nintzen. Euren aurpegiek beldurra erakusten zuten oraindik. Esan zutenez, hiltzeaz egon ziren.

miguel. prieto

Azken 12 urteotan parte hartu ondoren, aurten Miguel Prieto bigarrena izan da Granada-Dakar lasterketan. 46 urteko abenturazalearen taldea 50 lagunek, lau kotxek eta zazpi kamioik osatzen zuten. Guztira, 90 milioi. Datorren urteko helburuak: Kotxe hobe edukitzea, eta lehena izatea.

TESTUAK: ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL ARGAZKIAK: EDORTA SANZ

Miguel
Prieto
Michibishi
Pajeroarekin
aurrean.
Behean
rallyaren
pasadizu
bat,
Mauritaniako
harritxo
basamortua
zeharkatzen.



Urte osoa behar dut Dakarren beharrezkoa den diru kopurua lortzeko



lau kotxe eta zazpi kamioi.
Atera kontuak!

**Miguel Prietok helburu
bakarra du, Dakar irabaztea, alegia.**

Bai, baina behin baino gehiagotan.
Eta nolakoa da egun bat Dakarren?

Egunsentiarekin batera esnatzen zara. Ordubete kanpainadenda jaso, gosalduta, eta irteera puntuan egon behar duzu. Arazorik ez bada, 12 ordu ematen ditugu gidatzen; arazorik bada, gaupasa egin eta hurrengo egunean gauza bera.

Hamaika pasadizu

Eta noiz arte horrela?

Gorputzak ezetz esan arte. Badago 60 urteko gidaririk.

Bulego batean ez legoke hobeto?

Ba, ez. 330 egun eman behar ditut horrela, eta nazkatzen nau. Gorbata gorrotzen dut, eta egunero jantzi beharra daukat

17 egunez Dakarren egoteko. Gezurra dirudien arren, urte osoa behar dut babesleak lortzeko.

Bardeak izan ezik, gurean ez dugu basamorturik. Non entrenatzen duzu?

Gehienetan, Monegroren. Dena

den, nire lagun batek dioen bezala, Dakar oso luzea denez, aurreneko hiru egunetan entrenamendua egiten duzu.

Nola ikasten du gidariak, kotxeak apurtuz?

8 urte nituela, lasterketetan hasi nintzen. Neuk ikasi dut kotxeak gidatzen, ez dit inork irakatsi.

Nola hartzen dituzte afrikarrek Dakarreko portaideak?

Oso ondo. Mali, Mauritania... bezalako nazioek diru iturri nagusia Dakar dute. Baimenak, gasolina... milioiak uzten ditugu han.

Pasadizoz beteriko liburua idatz zenezake. Kontadazu bat.

Liburu bat baino gehiago idatz nezake. Nire pilotukideari ez zaizkio intsektuak gustatzen. Lasterketan geundela, oti izurritea izan genuen, eta kotxea otiz bete egin zen. Erabat urduri, Dominique Serieys-ek kotxetik alde egin zuen korrika.

Zure pilotukidea izateko prest nago, baina ez dut sufritu nahi.

Jai daukazu, orduan. Gidakideak oso ausartia izan behar du, horregatik, pilotukide on gutxi daude. Gidaria Miguel Prieto izango balitz, ni ez nintzateke pilotukidea izango...

Hala eta guztiz ere, Granada-Dakar lasterketan parte hartu nahi badut, zenbat diru behar dut gutxienez?

Motorrez egiten baduzu, zortzi milioi. Kotxez 15 bat, gutxienez. Hori bidaia zeko besterik ez. Aurreneko postuetan egon nahi baduzu, 100 milioi inguru.

Benidorm, hondartza jendez gainezka... Leku zoragarria oporretan joateko.

Ez, eskerrik asko. Basamortua atsegin dut. Ahal izanez gero, Afrikara joaten naiz egun batzuetan, baina lasai ibiltzeko. Bertako paisaiak harri-garriak dira, eta lasterketan zaudenean, ez dago ikusterik.

Gidaria Miguel Prieto balitz, ni ez nintzateke pilotukidea izango.

Hurrengo galdera ez dizute inoiz egin... Zer da garrantzitsuagoa mekanika ala gidaria?

Bien arteko orekak bikain funtzionatu behar du. Bata ona bada, eta bestea, txarra, akabo. Aurten 50 lagun izan ditut taldean, horrez gain,

botepronton

Jose Luis Ortun Gasteizko jokalaria bakarra da Baskoniaren lehen taldean. Berandu hasi zen saskibaloian, 14 urterekin atezaina baitzen San Vitorreko futbol taldean. Ate azpian aspertzen zenez, futbola utzi, eta Baskoniak antolatutako ikastaro batean izena eman zuen. Ez dakigu nolako atezaina zen Ortun, bai, ordea, etorkizun handiko jokalaria dela Scarioloren taldean.

Egungo Araba hotzagoa da

TESTUA: ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL ARGAZKIAK: EDORTA SANZ

Zertan pentsatu zenuen Tau Baskoniarekin Araba Pabilioian aurreneko puntuak sartu zenituenen?

Lehen buruan, poza. Joan den urteko Korac Kopako norgehiagokan izan zen, hain zuzen ere, Nancy talde frantziarraren aurrean. Arabatik irten, etxera heldu, eta partiduko irudiak behin eta berriz gogoratzen nituen, baita taldekideak ere, haiei esker lortu baintuen puntuak. Horrela, eguneroko entrenamenduetako lana eskertzen dizute...

Egungo Baskonian ingelesa jakitea ezin bestekoa da?

Ez, ez da derrigorrezkoa. Halere, Scariolok ingelesez egiten du gehienetan, eta zerbait jakin beharra dago, noski.

Eta Arabako jokalaria bakarra zara...

Bai. Batetik, Baskonia Europako talderik onenetarikoa dugu, eta bestetik, Araba lurralde txikia da. Ondorioz, taldean egotea oso zaila da, norgehiagoka guztietan irabazi beharra dago eta.

Hori dela eta, zu bezalako jokalaria gazte batzuek Gasteizetik alde egin behar izan dute. Garbajosa, aldiz, garrantzi-

tsua da ekipoan. Eta Jose Luis Ortun?

Ez dakit. Gasteizen jokatzen jarraitzea gustatuko litzaidake, baina, apika beste leku batera joan beharko dut. Beste talde batzuetan jokatzea errazagoa da. Hala eta guztiz ere, Baskonian jokatzeke gai naitela erakusten saiatuko naiz.

Errege Kopa irabazi ondoren Baskoniazaleek lasai hartu zuten garaipena. Kopak irabazten ohitu gara?

Baliteke. Orain lau urte izugarria izan zen jai giroa. Dena dela, gasteiztarrok oso gustuko dute saskibaloia, eta ohitu arren, badakite kopa bat ez dela egunero irabazten.

Zer irabazi behar du Baskoniak orduko jai giroa bereganatzeko?

ACB Liga edo Euroliga. Joan den urtean Liga irabaztear egon ginen; Euroliga irabaziz gero, onena zara, hau da, ez dago gehiago lortzerik.

Noiz sartuko ditu Ortunek 20 puntu norgehiagoka batean?

Bihar bertan izatea nahi nuke, baina... Egia esan, urruti ikusten dut, ez baititut minutu asko jokatzen, taldean nagoen

Jose Luis Ortun

Tau Baskoniako jokalaria



arren. Norgehiagoka irabazita dagoenean jokatzen dut, konfidantza handiagoa beharko nuke... Nire zeregina lan egitea da, eta bestea entrenatzaileak erabaki behar du.

Araba Pabilioian 9.000 lagun biltzen badira ere, Scarioloren iritziz, egungo Araba lehengoa baino hotzagoa da...

Sergiorekin bat nator. Lagun gehiago sartzen badira ere, guk zaletuei gutxiago entzuten diegu. Lehen kantxaren ondoan zegoen jendea, batzuetan pabilioia erortzen zela ematen zuen. Saskibaloia ikusizun bihurtu da.

Laburtuz, Ortun abizena izanik, San Vitorren ikasiz eta Kutxitik parrandan ibiliz, Euroligan diharduen Baskonian joka daiteke?

Bai, zergatik ez!

Ah!, do you like Araba Arena's name?

Yes, I do, because it's original name.

J A T E T X E A

XIXILU

AMARIKA PLAZA 2
23 00 68 GASTEIZ

IRUSTA

TABERNA

poteo eta pintxoak

ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

Argazki - Estudio

Erramun

Heraclio Fournier, 23 Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 13 71 02 Tfnoa: 26 19 91
01006 01004

AMILAMIA

arropa eta osagarriak

Pintore kalea, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ

jo eta ke

TXAPELARRI

TABER-

Aiztogile (KUTXI) kalean



kide **APAINDURA** **k**

Zerkabarren (Cercas), 27 Tfnoa: 14 41 95 GASTEIZ

berri berriena

datozen denborekin bat



HELBIDE BERRIA

geugaste@grn.es

g e u g a s t e i z a l d i z k a r i a

1999ko otsailaren 14an

Bon jour, les amis-amies!

Bazen behin Carcassonne-ko (Frantzia) aterpe-

ko gela batean euskaldun bat eta japoniar bat. Frantsesez hitz eginez konturatzen dira biok Quebec-eko doinua dutela. Hantxe ikasi zuten biok hizkuntza berezi hura eta barrez hango herriaz mintzatzen dira. Japoniarrak, Kenda, Carcassonne-tik beste leku baterantz abiatuko da. Elkarrekin gosalduko dugu eta bukatu ondoren agur esango diogu elkarri, beste non-bait (Quebec-en ote?) berriz elkar ikusiko dugulakoan. Hala ere, Kendak badaki Gasteizen etxe berri bat duela eta nik Osakan. Ni beste egun batez gaztelu eta dorredun herri honetan geratuko naiz...

Amestutako bidaia errealtate bihurtzen hasia da. Bitxia da amets hau hazteko modua. Film bat ("Hassán y el baño turco", edo holako zer-bait...) ikusten nengoela -Rafa nire lagunarekin- Istanbul agertu zen, eta nire burua kale haietan ikusten nuela jabetu nintzen... Urte batzuk lehenago izan banintzen ere, Istanbul hiriak atzera deitzen zidan.

Pelikula ikusi eta hile batzuk beranduago, Magisteritza amaitua dagoeneko, Lidia eta Asier adiskideekin bidaien inguruan berba egin eta trago bat hartu bitartean (egoera honetan gauzarik interesgarrienak burura dakizkizuke...), Asierrek bere Turkiarako bidaia nola azaltzen zuen entzuten nuen arreata handiz. Ezin nezakeen tutik esan, soilik entzun..., eta orduantxe zerbaitek kosk egin zidan barrutik. Asierren bidaia amaitutakoan, jadanik loak

hartuta etxera joan nintzen. Ohean nengoela-rik bidaia argazki liburu bat hartu eta begi bat hertsita nuenean... Ostias, Istanbulera bizikletaz!!!.

Hortik aurrera ideia hori izan da nire baitan bueltaka izan duan bakarra. Biharamunean, poz-pozik otutakoagatik, galderak iritsi ziren: nola, noiz, norekin, zer, dirua eta abar... Prestaketekin jada Jose, Bilboko laguna, agertu zen eta: lagunduko zaitut, ez dakit noraino; nekatu edo aspertu artean... Eta biok elkarrekin ateraginen otsailaren 3an Gasteiztik. Hasiera gogorra izan zen. Pisu asko eta ohitura gutxi.

Altsasu, Donostia, Biarritz, Baiona, Salies de Bearn... eta Pau. Azken herri honetatik Jose, euriar, hotzaz eta nekeaz bigundu, trenan hartu eta Irunera itzuli zen. Bakarrik geratu nintzen bidaia luze bezain erakargarri honetan...

Egundoko hotzarekin, elurretan, Tarbes-era jo nuen. Gero Boulogne eta Toulouse-ra. Oso hiri bizia hau, martxa eta mugimendu handikoa, eta ederra. Alde itzela La Campagne-ekin; jende gutxi, goibel samarra...

Eta Toulousetik hona, Carcassonne-ra... Hemendik ibiliko naiz kataroen historia ezagutu asmoz. Zergatik erreko ote zituzten katolikoei kataroak? Beno... jakin bai, baina ulertu ez. Agian bidaliko dizuedan

hurrengo gutunean izango duzue honen berri. Italiatik seguruenik.

Beno Geu Gasteizko lagunak, bukatzeko aitorten bat: japoniarrek ere zurrunga egiten dute! A prochain:

@mail: enekoetxe@hotmail.com



besteak

UNAI YUS

Kaiku afizionatu mailako taldeko txirrindulari gasteiztarak garaipen garrantzitsu batekin ekin dio 1.999ko denboraldiari. Valladoliden ospaturiko Caja de España Sarian gertatu zen, helmugara kilometro gutxi falta zirenean Pablo Trapiella valladolid-tararekin batera eginiko ihesaldia- ren ostean. Azken uneetan pelotoiak irentsi behar zituela zirudien arren, geratzen zitzaizkion indar apurrak erabili zituen Unai helmugako lerroa zapaltzen zuen lehendabizikoa izateko. Trapiella bigarren izan zen, Yusen denbora berean, eta tropela hiru segundu beranduago iritsi zen.

Duela hilabete gutxi Geu Gasteizen esandakoaren arabera, aurtengoa txirrindularitza uzteko urtea izan zitekeen, "profesionalitate jautzia eman ezean". Hasitako bideari eutsiz gero ziur aukera izango duela. Baietz Gorospe?

IGOR GLEZ. DE GALDEANO

Ez da Unai Yus denboraldia ederto hasi duen txirrindulari arabar bakarra. Galdeanotarren txikienak merotuhandiko garaipena lortu zuen, non eta Tirreno-Adriatico lasterketa famatuan. Ohi bezala, tropeletik ihes eginda, eskuratu zuen Vitalicio Seguros taldean korritzen duen Igorrek aurtengo lehen garaipena. Azkena izan ez dadila!

Tu Invernadero
zure lore sortak

ALDABE 6, BEHEA
tfnoa: 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

MARRAZKIAK
KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 13 27 20



HEGOALDE
euskaltegia

Jose Lejarreta 9 behea
tfnoa 28 41 96
01003 GASTEIZ

matrikula
zaitez!

Adi!

Datozen asteetan
1999ko harpidetza-
ri dagokion kuota
kobratzeari ekingo
diogu. Aurten
1800 pezetakoa
izango da.

Amets ezko aisialdi bat

Asiarako bidaia amets batetik esnatu zen, eta ilusio, gogo eta bizitzeko grinak errealtate bilakatu zuten. Ez da ez erokeria izan, ez erronka, ez eta abentura ere, bizitza bera izan da, Asian egindako bizitza, egunez egun, urratsez urrats egindako bizitza. Loturak, beldurrak, ziurtasuna, lagunak, familia eta Euskal Herria utzita abiatu ziren Asiarantz.

Herrialde musulmanetatik, hinduista eta budistetara egin zuten bidea. Karakorumeke negu hotzetik tropikoko bero eta hezetasunera, Kurdistango gerratik Indiako ispiritualitatera, Irango une zoragarrietatik Txinako inpernura... beti pedalei eraginez. Hamaika une latz eta beste hamaika une goxo bizitu dituzte, ahaztezinak guztiak.

Atzerrian, senitarteko eta arrotz izan dira, baina beti adoretsu. Eta bi pertsona dira, bi emakume, beste ezeren gainetik bizitza maite dutenak, eta urtebetez beren eguneroko bizitza Asiako mila kalere-tan egin dutenak; hori bes-

Amaia Elozegi tolosarrak eta Esther Mugertza Hernaniarrak herrialde musulmanetatik, hinduista eta budistetara egin zuten bidea. Bi mendizale eta txirringazale adoretsu hauek Asian egunez egun eta urratsez urrats egindako bizitza deskribatzen digute.

AMAIA ELOSEGI, ESTHER MUGERTZA
Txirringaren aienean

Txalaparta
1998.



terik ez,
edo hori
guztia.

Amaia
Elozegi

Urteaga. 1966 an Tolosan jaioa. Gorputz Heziketan eta Informazio Zientzietan lizentziatua. Lekarozko Batxilergo Institutuan

Gorputz Heziketako irakaslea. Ibiltari liburuaren egilea. Emakunde, Argia, Ipurbeltz eta beste hainbat aldizkaritako artikulugilea.

Esther Mugertza Imaz. 1968an Hernanin jaioa. Euskal Filologian lizentziatua eta Hizkuntza Plangintzan diplomatua. Ibiltari liburuaren itzul-tzailea. 1992az geroztik Malerrekako Euskara Zerbitzuko teknikaria.

Biak mendizale eta txirrindulariak. Oinez Pirinio, Atlas, Korsikako mendi, Mexikoko sumendi eta Himalaian ibiliak. Bizikletaz Yugoslavia ohia, Breizh, Danimar-ka, Holanda, Kuba eta Asian.

OLGA CONSUEGRA
Cuando se desnudan los espí-
ritus. Confesiones íntimas...

Ediciones Libertarias
1998.

Olga Consuegra kuba-tarra dugu, Ciudad de La Habanan jaioa 1962. urtean, gaur bertan bizi delarik. Kubako Irrati eta Telebista Institutuan dago lanean egun, eta Idazle eta Artisten Elkar-teko kide da. Dokumen-talak, poesia... bide luzea emakume honena, baina hau dugu bere lehenengo eleberria.

Liburuaren ardatza, gutun batzuk. Protago-nistak, Cacha eta Miel. Amodioa, heriotza, adis-kidetasuna, iragana, orai-na, etorkizuna, desleial-tasuna emakumearengan, dibortzioa, bakardadea,



seme-alabak jaiotzen direnean, lehenengo es-perientzia sexuala, haur-tzaroa, lehen amodioa... Sentsualitatea, pasioa, balorea... orrialdez orrialde. Eta guztiaren gainetik, Mielek dion legez, nire bizitaren egun orotan nire ame-tsen edertasuna defendat-zeko borrokatuko dut. Eta izpirituak errege dira errealtatea isla dezakeen nobela honetan, zeinak aldi berean fikziozko kutsu paraleloa duen.

PATXI ZUBIZARRETA
Joanaren erregin aukia

Aizkorriargitaletxea
1998.
Marrakia Agurtzane
Villaterrenak dira.



Istripu batek erabat aldatu du Joana eta Bixintxoren bizitza. Joana erregina egin da, denen gogoan dago eta denek dute gogoko. Bixintxo, oster, bazter-

tuta sentitzen da eta serio, muturluze eta kopetilun dago...



ARANBIZKARRA

**ZURE
AUTOESKOLA!**

Valladolid kalea, 16 28 28 39
01002 Gasteiz

ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna


GURIA

Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR



HegoAmerikako
jantzirik ederrenak

Pintore kalea • S. Frantzisko
kantoieko ertzean Tfnoa: 25 03 52



NONBALT

OPARIAK: ZERAMIKA, ZILARRA, POSTALAK...

KAMISETAK: BARABÚ, GREENPEACE, KOT, PERRETXIKOAK BASOAN...

Euskal oihalak

Loma jeneralaren plaza, 5 • 01005 GASTEIZ • Tlf. & faxa: 945 13 93 09



Fernando Auzmendi txalapartaren oraina eta etorkizuna

Keparekin
gauza-
tutako
agerraldietan
txalaparta,
garrantzia
bazuen
ere,
laguntzaile
baino
ez
zegoen

Gerla Beti, Araia, Lezaoko baserria, Ruben Callejo, Ibon Otxoa, Tomas San Miguel, Kalejira-Al-Buk eta Kepa Junkera. Horra hor Fernando Auzmendiaren bizitza eta musika karrearekin estu loturik dauden zenbait izen, iraganeko izenak, hain zuzen. Horretaz eta gaur egun bakarlari aritzen den txalapartari honen orainaz eta etorkizunaz egin genuen berba.

Kepa Junkerarekin egin zenuten bira hartan txalapartarentzako bakarreko uneak egon al ziren?

Beste musikari baten urgazle egon garenean, bera izan da jabea, gu bere agintepean ginelarik. Keparekin gauzatu agerraldietan txalaparta, garrantzia bazuen ere, laguntzaile baino ez zegoen. Bai, zuzeneko zenbait momentutan *txala* ukituren bat bazegoen, dena dela, ez zen inoiz musika tresna protagonista nagusi bilakatzen. Keparekin aritutakoetan, eta hori bezalako beste esperientzia batzuetan ere, erritmo atalaren partaide hutsak izan gara, eta ez gara inoiz saiatu txalaparta bakarreko agerraldi paralelorik antolatzen.

Txalapartari hitzaren adiera guztiak Fernando Auzmendi lagunarengan biltzen dira. Txalaparta jolea dugu alde batetik, txalaparta egilea bestetik, eta txalaparta saltzailea, azkenik. Orain hamahiru urte sortutako "Gerla Beti" izeneko bikote txalapartariaren erdia izan zen, agian azken urteotan "txala"ren munduan gertaturiko iraultzarik garrantzitsuen protagonista. Orain, laguntzaile finkorik ez badu ere, ez da aldentu txalapartaren mundutik. Ezta pentsatu ere!

Elkarrizketa hau egin baino lehen, musika berriztapena hitzak agertu diren bakoitzean *Gerla Beti* bikotearen garaia gogora ekarri dugu. Gaur egun ez al zaitugu jadanik txalapartari berritzailea?

Etengabe berriztatzen, ez errepikatzen saiatzen naiz, beti betikoari ekiten batere gogoko ez dut eta. Pertsona geldiezina naiz, atsegin dut ikeretzea, agerraldietan sortu dudak material berria aurkezten ahalegiten naiz. Duela gutxi alboka eta danborrekin batera zenbait zuzeneko eskaini genituen; *Huts-Hots* delako ikuskizuna, hain zuzen. Ondoren, harrizko, burdinezko eta egurrezko eraunspen tresnez, eta metalezko bidoiez baliatu ginen *Stronk* izeneko ikuskaria martxan jartzeko, eta gaur egun *Txala*-teknoan aritzen naiz. Hauxe aurretik datorkidan ideia da, tinkatu gabe neukan ideia bat, ale-

Etengabe
Etengabe
berriz-
tatzen,
ez
errep-
ikatzen
saiatzen
naiz

gia. *Txala*-tekno honetan txalaparta, teknologiak lagunduta, protagonista nagusi bilakatzen da, lehenengo lerroko musika tresna, gainerakoak laguntzaile daudelarik.

Oraindik ez duzue txalaparta hutseko disko bat ere grabatu.

Ez. Gure herrian txalaparta mito bat da, ikur bat. Lagun askok, zale amorratuak izan ezik, txalaparta zerbait aspergarriarekin parekatzen du. Alde sinbolikoa kontuan hartuta ere, ez zaio etengabeko arretarik eskaintzen, ez dira aintzat hartzen txalaren soinu ahalbideak. Bestetik, argitate-teeek ez dute uste txalaparta hutseko disko bat errentagarri izan daitekeenik. Noizbait grabatu dira txalaren soinuak, egia, baina gehienetan musika tresna laguntzaile egon da txalaparta. Duela hamabost urte J. Artzek eta A. Alemanek *txala* disko bana zertu zuten, grabaziook eragin



Badirudi
rock

musikariak
txalaren
erritmoez
eta
soinu
ahalbideez
ez
direla
jabetu

urria lortu zutelarik. Gu, eta baita beste txalapartari batzuk ere, disko bat grabatzen saiatu gara, baina inork ez du gure alde apusturik egin. 88an oso ale gutxi saldu zuen zinta bat gauzatu genuen. Dena dela, zinta hori nahitaezko erreferentzia bilakatu zen txalapartazaleen inguru guztietan.

Harritzekoa da oraindik ere gure rock taldeekin zu aritu ez izana?

Orain arte rock taldeengan txalak izandako eragina ahula da. Astiro, oso astiro omen dabilta bata eta bestearen arteko harremanak. Hasieran nik uste nuen berehala gertatuko zela rock eta txalaren ezkontza, baina ez, harritzekoa den arren, oraino ez da inolako harreman garrantzitsurik sortu. Badirudi rock musikariak txalaren erritmo eta soinu ahalbideez ez direla jabetu.

Maiatzean irakurri nuen hasieran txalapartari zaharrenek ongi ulertu zutela zuen estiloa, gazteenek, berriz, gogoko ez zutelarik...

Hasieran txalapartari zaharrenek gure estiloa ulertu eta gogoko izan zuten betiko erritmoetan, erritmo

Fernandorentzat txalapartaren soinua terapeutikoa izan daiteke eta hainbat gaitz sendatzeko baliagarria ere.

primitiboetan aritzen ginelako. Gaur egun, nik uste ez luketela inolako arazorik izango egiten duguna ulertzeko, gure estiloak betiko pultsoari eta txakunari eusten die eta. Askotan aldentzen gara jatorrizko erritmoetatik, egia, baina beti oinarritzora bueltatuz.

manak sortu eta estutzeko balio duen musika tresna baita. Gainera ez dugu ahortzi behar bikoteka aritzeko dela. Zangotzak Nafarroa Oinez-era zortzi txalaparta eraman genituen eta Araiako Araban Euskaraz-era lau. Neska eta mutil asko animatu ziren jotzera. Batzuek bazekiten jotzen eta beste batzuek estreinakoz egin zuten.



Eta materialari dagokionez, berriztatzerik bai?

Musikari batzuek esperimentuak egin dituzte material berrieekin. Guk, orain zenbait urte, harriparta asmatu genuen. Lagun txalapartari batekin European zeharreko bidaia batean gertatu zen. Arbelezko soinuadun harri batzuk topatu eta hona ekarri genituen. Larogeita zoztigarren urtea genuen iraultza horren protagonista nagusi bilakatu ginenean.

Eta noizko iraultza horren bigarren zatia?

Oraingoz eskertu behar dugu txalak bizirik jarraitzea. Txalaparta txalaparta bera baino gehiago da. Musika tresna laguntzailea izateaz gain, protagonista ere izan daitekeela esan nahi dut horrekin. Orain bidea eratzen ari gara, eta ondoren bide hori ahalik eta gehien zabaltzen saiatu beharko dugu. Azkenengo hamasei urteotan txalaparta bolbora bailitzan hedatu da, eta ondorioz gaur egun txalapartari asko dugu. Nolanahi ere, txalapartaren ahalbideak ez dira musika arlorat muga-tzen, zeren eta lagun arteko harre-

Eta Euskal Herritik kanpo, zer?

Lehen esan dizudanez, bidea eratu eta zabaltu beharrean gaude. Eta nola?. Kultura desberdinekin harremanen bidez, esate baterako. Nik uste Euskal Herritik kanpoko herrietan jasotzen dugun harrera hemengo baino hobea dela, kanpoan txalaparta gauza berria da eta.

Nonbait entzun dut zenbait terapiatan txalaparta erabiltzen hasi dela.

Bai, egia, lagun batzuk txalapartak ezaugarri osatzaileak dituelakoan gaude. Txalaren soinua bera terapeutikoa izan daiteke. Egiaztatu ahal izan dugu pertsona askorengan eragin nabarmena duela, sendo ditzakeela, hain zuzen. Medikuntza hautagarri gisa erabiltzen da dagoeneko, batez ere eskizofreniak eta buruko gaixotasunak tratatzeko. Uste dugu Down edota autismoaren osabidean txalapartak zeresan handia duela, zeren bere pultsoa bat baitator bihotzaren erritmoarekin. Dena den, sakonkiago ikertu behar dugun musika arloa da.

TESTUAK: TXABI ARNAL GIL



gaurkoak eta betikoak

rock'n'rolla-aren historia formato berrian



Agian, Bob Dylan-en musika karrera gertutik jarraitu duzuenok ez duzue *Desire* tituluko lana Minesotatar honen diskarik gogokoe-na. Seguru asko biografiek, aldizkari espezializatuak, eta Dylan-i buruz idatzi diren hainbat liburuk ez dute aipatuko 1976garren urteko diska bikain hau bere lan nabarmenen artean. Dena den, iritzi-emaileen eta zaleen aburuek ez digute gure jarrera aldatuko, alde batetik, geu ere judutar honen miresleak garelako, eta bestetik, *Desire* musikaren bilakaeran eragin handirik izan ez zuela dakigun arren, 70garren hamarkadaren erdiko binilo hau osatzen duten bederatzia abestiekin maitemindurik gaudelako. Eta denok ongi baino hobeto dakigu atsotitzak dioena; *mailasuna itsua dela*, hain zuzen.

Desire gauzatu zenean, Bob anaia zein bere musika helduak ziren. Dylan-ek ez zuen ezer erakutsi behar; merkatua lan borobilez beteta zeukan, eta, hogeita bi urte geroago esatea erraza bada ere, bere diskarik onena (sekula gaingidutiko ez

IZENBURUA: DESIRE
TALDEA: BOB DYLAN
DISKETXEA: CBS
URTEA: 1976

duen *Blonde On Blonde* ezaguna) kalean zegoen 60garren hamarkadaren bukaeratik. Hortik aurrera Dylan-ek agertu zizkigun lan guztiak abesti bildumak ziren; batzutan hitza zela medio elkarturik ailegatzen zitzaizkigun kantak, beste batzutan helburu zehatz batez sortutakoak (pelikula batez, esate baterako), eta gehienetan kanta-sorta bat baino ez ziren. Eta kanta-sorta guzti horien artean, orain hogeita bi urte *Desire* titulupean, *Hurricane*ren erritmoak heldu zitzaizkigun, bai!, bizitzeko gogoia ematen diguten horiek, eta xarmantasun misteriosuzko *One More Cup Of Coffee* kanta ere, eta *Oh, Sister* eta *Sara* ederrak, edota *Romance In Durango* haize mugatarrez beterikoa, besteak beste.

Orain badakizu; bilatu zure anai-arreba nagusien diska txokoan, eta hortxe topatzen ez baduzu, edo horrenbeste aldiz erabili eta gero orratzak ildoari eusten ez badio, jakin ezazu *Desire* lan bikaina musika denda guztietan prezio onean salgai izango duzula.

TXABI ARNAL GIL

beste batzuk

ANARI

anari

ESAN OZENKI



Disko hau 1997an kaleratu bazen ere, txoko honetara dakarkizuegu ezagutzen ez duzuenok entzun dezazuen. Anari-aren ahots sakona

bezain esanguratsuak gure baitan stop egitera gonbidatzen gaitu berak sortu kantuetako hitzen barrena bidaiatzen hasten garenean. Sentimenduak agerira, ez bereak, baizik guztionak. Kantautore hunkigarriaren gitarra ere ez da ahuntzaren gaurdiko eztula. Fusio ederra hitz, boz eta gitarraren soinuen artean. Bigarren diskoa lantzen dihardu, beraz has zaitezte lehenengoarekin zuen burua gertatzen, begien zulora abailduz...

THE MISEDUCATION OF L.H.

lauryn hill

SCARY



Lauryn Hill, The Fugees taldeko partaide ohia, bere karrera musikala bakarrik egiten hasi, eta hona hemen bide berriko lehenengo diskoa,

"The Miseducation", zeinarekin 1999an 4 grammy erdietsi dituen.

Bere ahots beroaz musika estilo desberdinetan murgiltzen da musika-tresna elektrikoak eta klasikoak jarriotasunez uztartuz, emaitza dotorea lortzen duenarik.

Disko hau berak idatzi eta ekoiztua da. Kolaboratzaileak honako hauek: Carlos Santana eta bere gitarra-punteatze zoragarria, eta Elizabeth Valletti bere harpa harmoniatsurekin.

Lan fina, etorkizun oparoa iragartzen diona.

gureak

Arabako taldeen zerrenda luzea

LUNA HIENA

Rock, folk eta blues-ari ekiten dieten bost lagun hauen musika entzuteko unerik aproposa afaldu eta gero omen da. Rober, David, Ra'l, Rafa eta Carlos prest ditugu eskenatokitian, kabaretetan edo tabernetan jotzeko. Aurritirizirik gabe.

KONTAKTUA: 945 25 04 03 (Rafa)

PSIKOTIKO MOON

Duela 3 urte sortutako hirukote honek larogeigarren hamarkadako rock-az beteriko bi make-ta gauzatu ditu jadanik. Hasieran ingelesaz zein gazteleraz abesten zuten arren, gaur egun bakarrik irletako hizkuntzari ekiten diote. Euren izenak Sergio J.M. eta Eduardo dira.

KONTAKTUA: 945 24 09 63

PAMELA STEVERS GROOVE QUARTET

Ezagunak dituzu Pamela Stevers, Nando de la Casa, V. Celada eta J.A. Gereñu izenak? Bai? Jakin ezazu, bada, lau musikari ospetsu hauek groove, acid-jazz, funky eta soul musika hahasten dituen talde bat osatzen dutela: Pamela Stevers Groove Quartet izenekoa, hain zuzen. Gure hiriko musikaren jarraitzailea izanez gero, ez dizugu ezer gehiago azaldu behar.

KONTAKTUA: 94 421 11 07

Arriaga
Megadenda

-REN ESKUTIK

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendañu kalea 48 • Tfnoa: 22 34 33

GASTEIZ

MIKO

izozkiak

GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Hedegile (KORRE), 14 San Migeleko Pasabidea
Tfno: 12 08 88

01001 - GASTEIZ



LEHIAKETAK

Olerkigintza. Gasteizko Udal Liburutegi Publikoen sareak IV. Poesia Lehiaketara deitu du. Olerkiak gaztelaz edo euskaraz idatzi behar dira eta Udal Sarearen edozein Liburutegian aurkeztu behar dira martxoaren 26a baino lehen. Diru polita dago saritan, hori bai, liburuak erosteko. Ekimen polita.

Udaleko Kultura Zerbitzua,

Goiuri Jauregia

Aihotz plaza, z/g. 945 16 12 70

Literatur sortzea. Beasaingo Udalak, CAF entpresak eta Elkarlanean argitaletxeak idazle berrientzako literatur sorkuntzako beka, Igartza Saria, antolatuta dute berriz ere. Narratibako lanak egiteko proiektu onena sarituko du, 500.000 pezetarekin. Proiektuak ekainaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira.

Beasaingo Udala. Euskara Zerbitzua.

tfnoa.: 943 88 59 00

HITZALDIAK

Gaur gurekin. Gasteizko Udalak antolatuta honakoak dira Goiuri Jauregiak jasoko dituen hurrengo hitzaldiak. Denak arratsaldeko 20:00etan egingo dira:

- martxoak 22: Luis Landero, 1990eko Letren Sari Nazionalaren irabazlea
- martxoak 26: Koldo Amestoi, kontalaria.
- apirilak 6: Jose Angel Mañas, 1994ko Nadal Sariaren finalista
- apirilak 22: Euskal idazleen mahaingurua

BERTSOAK

Arabako Txapelketa. Prudentzio Deuna-Estibalzko Ama Bertsolari txapelketa abian da. Egunotan final laurdenetako bi saiok ospatuko dira. Lehen, martxoaren 19an egingo da. Txusta tabernan, 19:00etan. Bigarrena Aramaioko Iturietan, martxoaren 26an. Saio honetara joateko autobusa Iparalde Gizarte Etxetik abiatuko da 16:00etan. Informazio gehiago lortu ahal izango duzue Txusta tabernan.

ANTZERKIA

Piratak nonnahi. Teatre de la Caixaeta konpainia kataluniarrak Una de Piratas antzezlanak dakarte Principal Antzokira. 6 urtetik aurrerako haurrentzat gomendatuta. Barbanegra pirata mitikoaren istorio berritua da.

Martxoak 28, igandea. 18:00etan.

Sarrera: 900. 16 urtetik beherakoek: 450.

www.vitoria-gasteiz.org

MARGOAK

Aitor Urdangarin. -en arte galeriak Nazioarteko II. Margolaritza Lehiaketarako deia zabaldu du. Bi arlotan banatua dago, batetik oleo edo akrilikoan eginiko lanak eta bestetik akuarelan sortutakoak jasotzen dituztelarik. Ia 6 milio t'erdia pezeta dago saritan. Lanak martxoaren 25a baino lehen aurkeztu behar dira Betoño Industrialdeko Mendaro kaleko 17. pabilioan.

<http://www.linkinternet.com/certamen>

IPUINAK

Ipuin kontalaria. Jose Mari Karreré ipuin kontariak emanaldia emango du martxoaren 25ean Europa Gizarte Etxeko liburutegian. 5 eta 11 urte bitarteko haurrentzako saioa izango da eta arratsaldeko 18:00etan hasiko da. Sarrera doan.



BISITA

Katedralera.

Lagun-Arte auzo elkarteak Santa Maria Katedrala ezagutzeko bisita antolatuta du. Martxoaren 27an

izango da eta joan nahi duenak aldeztu aurretik eman beharko du bere izena. Aiala Kantzillerraren kaleko 13 zenbakiko egoitzan.

MUSIKA

Duncan Dhu. Apirilaren 24an

Principal Antzokian. 1750 pezeta.

Pedro Guerra. Maiatzaren 7an,

Principal Antzokian. 2500/2200 pezeta.

erakusketak

GIZARTE ETXEAK.

Gasteizko Gizarte Etxeen Sareak Euskal Folklorearen deritzon erakusketa antolatuta du. Martxoaren 15etik 28ra Ariznabarrako fonotekan egongo da. Martxoaren 29tik apirilaren 14ra arte Judimendikoan eta apirilaren 19tik maiatzaren 8ra bitartean Lakuakoan.

KORDOI ETXEA.

Martxoaren 23ra arte Kordoi Etxeak Eskolarteko XVI. Komiki Lehiaketaren lanak jasotzen ditu. Aukera paregabea etorkizunean barrez lehetaraziko gaituzten artistak ezagutzeko.

DENDARABA.

Komertzio gunearen lehen solairuak arrai tropikalen

akuario erakusketa ikusgarria jasotzen du martxoaren 28ra arte. Pirañak, pailazoak edota kirujanoak dira protagonista haur eta helduen gozamenarako



Errege Atea, 9
GASTEIZ

Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

22 65 64
GASTEIZ

Zaldiaran Plaza, 10

JANTZI ETA OPARIAK

Aiztogile (KUTXI), 27
Tfnoa: 26 07 10
GASTEIZ

SAN FRANCISCO KANTOA 4 GASTEIZ
TEL: 276833 01001

Astaltzerak edurrak
JAVAKI BEGETARIANO
Pintxoak
Aiztogile
Kantxak
Tartak
EAB...

ONGI ETORRI

KUTXI 103
GASTEIZ

LA RIOJANA

jatetxea

on egin!

bokatak, pintxoak, kazuelatxoak

Aiztogile (KUTXI), 33 tfnoa. 25 02 39

AMETS, BORROKA ETA ILUSIO KOKTEL BAT

Imanol Olabarria / martxoaren 3an langile

ende honen bukaeratik, galdera bat; zer izan zen Martxoaren 3ko borroka? Amets, borroka eta ilusio koktel bat. Ametsak: Askatasunekoak, sindikatu bertikal zein frankismoaren menpeko hainbeste urte gainetik kendu nahiarenak, eta lantegien lan egoeraren kontrola eskuratzearenak. Borroka: Langileon duintasunagatik. Asanbladak ezarri genituen eztabaida eta erabaki gune bezala, eta hauek ordezkatzen zituzten komisiok, edozein momentutan ezeztagarriak. Demokrazia zuzenaren bitartez jende arruntaren protagonismoa ziurtatuta zegoen.

Borroka berdintasunagatik ere. Denboran zeharreko sakabaketa aurrean gure aldarrikapenak modu bateratuan aurkeztu genituen. Gure arteko desberdintasunen aurrean igoera linealak (ez portzentualak) inposatu genituen.

Hobekuntza ekonomiko eta lan egoeraren hobekuntzaren gainetik kaleratuen beronartzea, atxilotuen askatasuna eta hauen lanpostuen mantentzea inposatu genituen.

Hauek guztiak dira 3 hilabetetako borroka bat ahalbidetu zuten ametsak. Baita borroka honi aurre egiteko botereak 5 lagun erahil, beste 90 baino gehiago balaz zauritu eta beste hainbat sedizioaren akusaziopean atxilotu behar izana...ere.

Errealitatea baino gehiago ametsa ematen duen honen aurrean, zer gertatu zen orain dugun desilusio eta porrot sentimendu honekin egoteko?

-Alderdi eta sindikatuak eskaini eta inposatu zitzaizkigun langilegoaren zati baten pozerako. Baina eztabaida asanbladak ostu zizkiguten, gure integrazioa bilatzen zen garai horretan hain garrantzitsuak zirenak.

-Politikari eta sindikalisten interes partidistek batasuna apurtu zuten eta afiliazioak elkarlana ordezkatu zuen.

-Frankismoaren bukaerarekin guztiok interes amankomunak genituela saldu ziguten, klase-gatazka desagertua zela.

-Langile kandidaturak agertu ziren, botoa ematera deitu gintuzten eta gure protagonismoari uko egin genion. Boterearen kontra egotetik botere bila ibiltzera pasatu ginen.

Gaur, 23 urte beranduago, beharbada hura errepikaezina dela deritzot. Gaur eguneko mundua irteerarik gabeko bide aldakor bat da, non iparra gero eta ezezagunagoa zaigun. Hona hemen bere izaeraren zenbait ezaugarri:

-Eredu sobietarraren porrotak Mendebalde utzi du garaile

bakar gisa, bere garaipena nola gauzatu den eta berarekin zer egin ez dakiela. Hainbesteko aberastasuna hainbeste pobrezia-ekin inoiz ez dela egon ikusten duen aldi berean, populazio ugaria batez ere Hegoaldean baina baita Iparraldean ere SOBERAN dagoela, ENBARAZU egiten duela eta ARRISKUTSUA izan daitekeela egiaztatzen du.

-Urdaitetik harrapatuta gaituen gizarte batean bizi gara. Ideiak ezin argiturik iraganeko balore mesprezagarriak (diruzalekeria, norberekeria...) mende bukaerako eredu bihurtu ditugu.

Rotok bere bineta batean esaten duen moduan puntu batera heldu gara zeinean "boterearen eskandalu handiak herri xehea usteltzen dute".

-Kapital-lana kontradikzio bakarraren pean sortutako langile mugimendua, urdail izugarri eta buru txikiko izaki amorfoa da gaur egun.

Esplotazioak bizitza bere osotasunean barne hartzen duela ulertzen hasi beharko genuke: produkzioa, kontsumoa, aisialdia, sexu-generoa, Ipar-Mendebalde erlazioak...

Aldaketa sujetorik baldin badago honek, dudarik gabe, anizkoitza izan behar du.

-"Demokratizatutako" planeta batean erabaki garrantzitsuenak eremu publikotik kanpo gelditzen zaizkigu. Politika botere ekonomikoaren pean egonik, antolaketa ereduak eta partehartze bideak zentzu eta baliorik gabe azaltzen dira edota distrazio tresna soilak ditugu.

-Lorpen sozialak gauzatu zituen borroka, ordezkatua izan da ministerio desberdinen aurreko eskakizun edo bukaera gabeko negozioengatik.

-Instituzio, alderdi eta bereziki sindikatuak hasiera bateko helburuei uko egin eta biziraupena dute jomuga lehengotzat.

-Garai batean errepresioak eta miseriak kontzientzia sortzen zutela esaten bazen, gaur beldurtu, sakabanatu eta irentsi egiten gaituzte.

-Honi guztiari gehitzen badiogu ez guztiok, baina bai gehienok, kontu korronte bat dugula banketxean eta normaltaz jotzen dugula diru kopuru batetik aurrera aberasten saiatzea...

Egia esan asko gara, gero eta gehiago, jendetza osotzen dugun bakartiak. Arrazoiak edukiko ote du Garcia Calvok?: herria gara, kontradikzioa gara, etsipena gara, inposatzen diguten kontrol moduen aurkako iraultza neurgaitza gara?

J A T E T X E A



Aiztozile (KUTXI), 26 tfnoa: 28 81 47
GASTEIZ

EUSKAL LABELA
LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 25 56 90 GASTEIZ

arropa eta osagarriak
NEMEN DUZU ESTEKO ZEMUENA!
Pintore kalea, 23 • Tel. 28 18 38

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



Andaluzia kalea 13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA
URDAITEGIA

Paraguai kalea 17
☎ 27 07 90
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



FLORIDA AZOKA 2 ETA 3
☎ 13 24 48
ABASTOS AZOKA 2 ETA 3
☎ 26 78 97



JOSEBA
HARATEGIA

Paraguai merkatua
10 El Pilar auzoa
☎ 25 66 89
GASTEIZ



**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**

Floridako altxorra !

35



adaka 
madinabeitia

altzariak • apaindurak
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ

amorea Txeroki



1+1 = hamaiika

Korrika

zu eta in
enstakaz

**badator
badator!**

Martxoaren
19tik 28ra
Iruñea-Donostia

korrika



FEMINISMOA

Edurne Begiristain / kazetaria

artxoaren 8ari buruzko iritzi artikulua bat idaztea eskatu didate eta nik baietz erantzun. Baina orain, papera aurrean dudanean, zaila asko egiten zait gai honen inguruan burura datorridan guztia orrialde honetan laburtzea. Emakumearen egoeraz esan daitekeena zabala da oso, eta gai ugari jorra daitezke: martxoaren 8a eguna bera, eskubideak, lan egoera, feminismoa...

Eta feminismoaz hitzegingo banu? Lehenik eta behin, eta ezeretan hasi aurretik, Espainiako Erret Akademiak (Real Academia Española-k) feminismoaz zer dioen ikus dezagun: Emakumearen aldeko doktrina, zeinek aurretik gizonezkoek bakarrik aitortutako eskubideak eta gaitasunak emakumezkoari ematen dizkion. Edo bestela, gizonezkoen eskubide berberak emakumezkoek izan dezaten eskatzen duen mugimendua. Definizio hauen arabera, gaur egun feminista ez den emakumerik egon liteke?

Harritzekoa bada ere, egon badira feministak ez diren emakumeak. Moralak, ohiturak eta erlijioak eraginda emakume askok uste izan dute (eta uste dute) badirela bere generoarentzat debekatutako gauzak, guneak, arloak edo/eta bizitzeko erak.

Egia da aurrerapauso anitz eman direla, baina oraindik ere bide luzea dugu ibiltzeko. Emakumeok erronka garrantzitsua dugu aurrean: espeziearen erdia, gizonezkoak alegia, feminista bihurtzea, hortaz, gaitasun eta eskubide berekoak garelaitortzea, eta ondorioz, kontsekuenteki jotkatzea.

Gaur egun normaltzat eta ukaezintzat jotzen diren emakumearen eskubide ugari, bere garaian aldarrikapen feministak izan ziren. Zalantzarik gabe aurrera egin dugu, baina oraindik ere emakumeok, eta oro har gizakiok, jasaten ditugun "sailkatze" zentzugabeek bere horretan diraute: gure keinuak, irudikapenak, jarrerak, jokabideak..., guzti-guztia neurtuta dago, eta ondo neurtuta gainera!. Gure generoaren arabera joka dezagun espero da, emakumezko eta gizonezkoen balioaren arteko desberdintasunaz hitz egiten da... Tamalez, ez dugu gizakiaren kontzeptua behar bezala barneratuta. Desberdintasunik gabeko pertsonaren zentzu horretara

iristeko bidean topatzen dugun arrisku handiena, indarrean dagoen sistema politiko-ekonomikoa da, kapitalismoa, alegia. Kapitalismoa, egoerak eta iritziak manipulatzeko gai da, eta emakumearen borrokan emandako aurrerapauso bakoitzeko bi atzerapauso emateko gauza ere bada.

Dudarik ez dago kapitalismoak emakumeak manipulatzeko dituela: alde batetik, lan merkatuan parte har dezagun bultzatzen gaitu gehien behar gaituenean (guda garaietan, hain justu), eta bestetik, etxean geratzera behartzen gaitu produkzio kateetan beharrezkoak ez garelait erabakitzen duenean. Kapitalismoarentzat eskulan merkea baino ez gara (merkeenatik merkeena). Are gehiago, historiak argi asko erakutsi digu egoera gogorrenak pairatzen duen kolektiboa emakumearena dela. Azken batean, sistema kapitalistaren barnean emakumea gizonezkoaren pareko ez izatera behartuta dago.

Hortaz, eta hasierako galderari eutsiz, egon liteke feminismoaren beldur denik? Ba, zoritxarrez, oraindik ere bada jende franko; asko gainera euren burua aurrerakoi eta demokratizat jotzen dutenak. Pertsona hauek guztiak ez dira ohartu feminismoa gizakiarentzat aldaketa iraultzaile itzela dela. Alta, argi dago feminismoak beldurtzen duela, izan ere, gizon asko ezezik, emakume ugari ere publikoki feminismoa gaitzesten baitute.

Gauzak horrela, eta bukatzeko, mugimendu feminista beharrezkoa dela deritzot, izan ere, pentsamendu kritikoa den heinean, gaitasun iraultzaile handia baitauka. Halere, feminismoak ezer gutxi egin dezake emakumearen alde, oinarri sendoa ez badauka. Hau da, feminismoak, eraginkorra izateko, sistema edo mugimendu ideologiko egokia behar du izan, eta hori, giza justizian eta berdintasunean oinarritutako gizartean baino ez du aurkituko.

*Testu honek balio diezaiola martxoaren 8an edo irailaren 27an berdintasunaren alde borrokatzen duen emakume orori (eutsi goiari!). Eta, halaber, tamalez matxista diren emakume eta gizon guztiei.



GASTEIZ
DIBUtec
 Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01
 • Material escolar y de oficina
 • PAPER BIRZIKLATUA
 • FotoKopiak
 kolorez eta Zuri-Beltzean
 Arte ederretarako...
 behar duzun
 guztia
PAPERTEGI TEKNIKO

BAR KLAKÉ
 KUTXA, 2
 TFN. 143883
GASTEIZ



ONDOKOETAN BADAGO EUSKARAZ DAKIEN LANGILERIK

UDAL-BULEGOAK ZERBITZUA	HELBIDEA	TFNOA.
Udaletxea		
Argibideak eta Erregistroa	Espainia plaza, 1	16 11 88
Emakumeentzako Zerbitzua	Espainia plaza, 1	16 13 45
Errolda	Espainia plaza, 1	16 11 06
Euskara Zerbitzua	Espainia plaza, 1	16 15 22
Funtzio Publikoa	Espainia plaza, 1	16 11 41
Gazteen Argibide Bulegoa	Espainia plaza, 1	16 13 30
Idazkaritza	Espainia plaza, 1	16 13 20
Prensa Bulegoa	Espainia plaza, 1	16 13 37
Zerbitzu Orokorrak	Espainia plaza, 1	16 13 08
Udala (Dato kalea)	Borondatezko Diru Bilketa Zergen Gestioa	Eduardo Dato kalea, 11 Eduardo Dato kalea, 11
		16 16 68 16 11 33
Udala (San Prudentzio kalea)	Gizartegiuntza Hiri Hobekuntza Ingurugiroa	San Prudentzio kalea, 30 San Prudentzio kalea, 30 San Prudentzio kalea, 30
		16 13 44 16 13 01 16 11 20
Udal artxiboa	Argibideak	Unibertsitateko Ibilbidea, 1
		16 14 99
Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegia	Argibideak	Espainia plaza, 1
		16 12 88
Kultura	Argibideak	Goiuri Jauregia (Villa Suso)
		16 12 70
Hezkuntza	Argibideak	Frai Zacarias kalea
		16 12 16
Ekonomi Sustapena		Frai Zacarias kalea
		16 12 11 16 13 48
Gizarte Etxeak	Ariznabarra Hegoalde Iparralde Judimendi Lakua Landatxo	Ariznabarra kalea, 19 Alberto Schommer kalea, z/g Zuberoa plaza, z/g Urriaren Hamabiaren kalea, z/g Etxanobetarren zidorra, z/g Santa Maria kalea, 4
		13 36 91 16 18 80 16 17 60 16 17 40 17 17 81 16 16 82
Europa gizarte-etxea	Argibideak Biltzar eta Turismo Bulegoa Kontzientzia Eragozpena	Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85
		16 12 31 16 12 61 16 36 91

CASA DE CULTURA

Operación
Euzko Aldea

Araba
Fero Aldekoa

KULTURA ETXEA

KULTURA

CASA DE
ETXEA

hitza kultur etxean

martxoak 17, asteazkena

Musika emanaldia

Tribuaren hitz galduak

Pako Aristi eta Mikel Markez.

apirilak 14, astezkena

Txotxongilo emanaldia

Eman eta gero (euskaraz)

Enkarni Genua. * arratsaldeko 18:00etan

ekitaldi guztiak arratsaldeko 8etan hasiko dira

Florida pasealekua, 9 - 945 18 19 44 - faxa: 945 18 19 45 - 01005 - GASTEIZ